



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

.....

Uraren ziklo integrala
kudeatzeko ordenantza

.....

URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

1. Iruñerriko Mankomunitatearen Estatutuek, 5. artikuluan, edateko ur-hornidura, estolderia, saneamendua eta hondakin-uren arazketa zerbitzuen alorrean, eta haren baitan sarturik dauden udalerrien barrutietan, hark daukan titularitatea aitortzen dute. Eskumen hori gauzatzearren, 1987an Uraren ziklo integralaren kudeaketa arautzen duen ordenantza onetsia izan zen. Hala izanik ere, ordenantza hori indarrean jarri eta geroago, uraren ziklo integralaren kudeaketari eragiten dioten maila ezberdineko arauak ezarri izan dira (Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko 10/1988 Foru Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legea, Hirigintzari buruko Foru Legeria eta Estatukoa, Ingurumena Babesteko Esku Hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legea, Eraikuntzaren Araudi Teknikoa, Kontrol Metrologikoari buruzko 889/2006 E.D., Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babesa Hobetzeari buruzko 44/2006 Legea). Direlako lege eta arauok ur-hornidura eta ur-saneamendu zerbitzuak kudeatzeko eran nabardura eta aldaketak ekarri dituzte. Gorabehera horrek, bai eta, harekin batera, 1987ko ordenantza aplikatetik lorturiko esperientzia eta zerbitzu horien erabiltzaileen beharrak asetzeko xedea, abiapuntu izan dira Uraren ziklo integralaren kudeaketa arautzen duen ordenantza berri honentzat.

2. Zerbitzuak behar bezala emateko eta horien kudeaketa zuzena egiteko helburuak zeregin horretan parte-hartzea duten Administrazioen arteko lankidetzak eskatzen du, eta hori dela eta Ordenantza berri honen bitartez Udalen lankidetzak sustatu nahi da, hirigintzan, ingurumenean eta osasungintzan eskumena duten Administrazio diren aldetik. Plangintza- tresnak sortzean berean koordinazio egokia izateak zerbitzuaren kalitatea hobetzeko balio behar du.

3. Era berean, jarduteak erakutsi izan du saneamendu zerbitzuaren hainbat berezko ezaugarri modu zehatzago batez erantzuteko beharra, harguneei, barne-instalazioei zein kontratazioari dagokienez, horrela uraren ziklo integralaren ikuspegi orokorragoa lortu delarik.

4. Ordenantza hau hamar titulutan egituratuta dago, gehiturik Zioen Adierazpen hau eta xedapen iragankorrak, gehigarriak, derogatzaileak eta azkena.

5. I. Tituluak zerbitzuen kudeaketa eredia azaltzen du, hala nola Ordenantzaren objektua eta haren aplikazioa eta indaraldia, legeriak ezartzen dituen araberakoan.

6. II. Tituluak zerbitzuen edukia eta izaera publikoa ezartzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera nahitaezkoztat emana, hala nola haien definizioa eta dituzten elementu osagarriak, azkenik erabiltzailearen zein zerbitzuak ematen dituen Iruñerriko Zerbitzuak, E.A. (IZEA) enpresaren eskubideak eta betebeharrak. Hornidura eta saneamendua arautzen zituen orain arteko Ordenantza-errekiko, artikulua batean zerbitzuak hedatzen direneko eskumenak sistematizatu dira. Hornidura zein saneamendu zerbitzua definitu egiten dira, uraren ziklo integralari datzekion elementu eta azpiegituren zerrenda zabalduz. Erabiltzailearen eta IZEaren eskubideei eta betebeharrak dagokienez, era zabal, gaurko eta baikorragoan bildu nahi izan dira.

7. III. Tituluan, zerbitzua jasotzeko sarrera arautzen baitu, Toki Entitateen arteko lankidetzaren beharra azpimarkatu nahi izan da, zein bere eskumenekin, baina gune geografiko berean elkartzen direnak izaki. Azken erabiltzaileari hornidura eta saneamendu zerbitzuak modu zuzen eta egokian ematekotan, hiri-planifikazio batez hasten da, non ukitzen diren alderdi guztiak barne hartzen diren, eta haien artean Ordenantza honen xede diren zerbitzu guztiak aurkitzen diren. Hori dela kausa, Mankomunitatearen eta Udalen artean komunikazio bidea ezartzen da, nolaz eta zerbitzuak erabiltzailearentzat era onuratsuenean eraturik gera daitezkeen. III. Titulu honen bigarren berrikuntza sustatzaile edo jabeen eragiten dieten betebeharren ezartzea da, hornidura eta saneamendu zerbitzuei dagokienez, delako zoruaren kategoria zein den ere, betebeharrak horiek Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen edukiarik egokituaz.

8. IV. Titulua eskusiboki hornidura-harguneei zein saneamendukoak dituen gai, funtsezko elementutzat jotzen baita, sareak eta barne-instalazioak lotzen baitituzte. Haien baimentzea, gauzatzea, mantentzea eta zaintza arautzen dira, bide publikoan barrena eraikiak izan daitezela beharra berretsiz, zerbitzuak era egokian emanen direla horrela bermatzearren. Zerbitzu bakoitzaren ezaugarri bereziak jaso ditugu hor, horiek eskuratzeko zein baldintza bete behar diren laburdurik, orain arteko araudian sakabanaturik agertzen ziren eta.

9. V. eta VI. Tituluak Eraikuntzaren Araudi Teknikoak barne-instalazioez eta neurketa sistemez ezartzen duen araupideari lotzen zaizkio, sare nagusietan eraginik izan lezaketen aspektuetan bereziki, hala nola barne-instalazioak beste horien ahalmenari egokitzekoan. Beste alde batetik, neurketetan erabiliko diren gailuetarako emari nominala hartzen da erreferentzia-ezaugarritzat, Europar Batasunaren zuzentarauari jarraikiz, eta Estatuko araudiei haien ondorengo transposizioa eginda gero, zeinek ezartzen baitu

nahitaezkotzat neurketa gailuen funtzionamenduko ezaugarri nominalei buruzko informazioa baliatzea.

10. VII. Titulua hornidura eta saneamendu zerbitzuak kontratatzeari buruz ari da, non ur- hornidurari eman dakizkiokeen erabilpen mota ezberdinak aurreko Ordenantzan egiten zena baino era zabalagoan eta exhaustiboagoan definiturik geratzen baitira. Halaberean, kontratuaren indarraldian zein gorabeherak eragiten dioten arautzen da, hala nola iraupena, etetea, deuseztapena, lagapena eta subrogazioa.

11. VIII. Titulua, zein kontsumoa eta fakturazioaz ari dena, aurreko araudietan aurreikusten zen araupidearen jarraipena da, ordainbideak eta oroharreko preziopeko kontsumoekin erlazonaturiko puntu zehatzetan izan ezik.

12. Arau-haustekak eta zehapenak arautzekoak, IX. Tituluan, bai eta horietarako prozedura ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legean ezarritakoari eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak agindutakoari egokitu zaizkie.

13. Erreklamazioak eta Jurisdikzioari buruzko X. Titulua gai horietaz Mankomunitatearen eta IZEAren arteko Harreman Arautegiak dauzkan ezarpenetara moldatu da.

14. Ordenantza hiru xedapen iragankor, bi gehigarri, derogatzaile bat eta azken xedapenarekin amaitzen da.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua ZAERA

Iruñerriko Mankomunitatea Entitate Lokala da, elkarte izaera duena, eta bere eskumenen artean ur-edangarri hornidura ematea, estolderia eta saneamendua eta hondakin-uren arazketa egitea daude, Entitate Lokalen udalerrietan edota Mankomunitateak une bakoitzean direlako zerbitzu horien titularitatea dueneko edo jardun-eremuetan.

2. artikulua ZERBITZUAREN KUDEAKETA EREDUA

Mankomunitateak aurreko artikulua aipatzen dituen zerbitzuak xede horretaz berak eraturiko Kudeaketa Elkarte baten bitartez kudeatzen ditu, Iruñerriko Zerbitzuak, E.A. (IZEA) zerbitzu lokalak emateari buruzko gaietan indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin adostasunean.

3. artikulua XEDEA

1. Ordenantza honen xedea uraren ziklo integralaren kudeaketarako Mankomunitatearen jardun-lurraldean ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematearen arautzea da, zerbitzu emallearen eta erabiltzailearen arteko harremanak arautuz, eta bi alderdietako bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak zein diren adieraziz.

2. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateagatiko prezioen zehaztapena eta haien ordainketa, hala nola uraren ziklo integralari dagozkion emandako beste zerbitzu eta jardueri dagozkienak, xede horretarako Iruñerriko Mankomunitateak indarrean jarriko duen Ordenantzaren esanetara gauzatuko dira.

3. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak kudeatzeko, Mankomunitateak behar den adina ordenantza eta xedapen onesten ahalko du, honako honen osagarri edo bera garatzeko beharrezko diratekeen guztiak.

4. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuen kudeaketarako Mankomunitateak onetsitako xedapenez gain, direlako zerbitzu horien ematea, aplikagarri den legeriaren arabera, zein alorretako den, eginen da, publikoa delarik zein pribatua delarik ere.

4. artikulua APLIKAZIO EREMUA

1. Mankomunitatearen Estatutuetan ezartzen den eran, uraren ziklo integralari dagozkion eskumenak Mankomunitateari transferitu dizkioten Udalen lurraldeek osatzen duten eremuan Ordenantza honek erabateko indarra izanen du.

2. Hala eta guztiz ere, eta 11. artikuluan ezartzen den moduan, Ordenantza honen eremuaz kanpoko entitate

lokali ere hornidura eta saneamendua eman ahalko zaie.

3. Ordenantza honen arauak analogiaz aplikatuko dira espresuki arauturik ez dauden kasuetan, eta, beren izaeragatik beragatik, aplikazio-eremuaren barnean daudenetan.

4. Mankomunitateak Ordenantza honen aplikazioan sor litezkeen zalantzei buruzkoan bidezko jotzen duen interpretazioa ezarriko du.

5. artikulua **INDARRALDIA**

Ordenantza honen iraupena mugagabea izanen da, eta bere eragin osoa izanen du, maila bereko edo handiagoko beste xedapenen batek parte batean edo osorik aldatzen ez duen bitartean.

6. artikulua **IZENDAPENAK**

Ordenantza hau argiago egitearren, edateko ur-hornidura eta hondakin-uren saneamendu zerbitzuak edota uraren ziklo integralari dagozkion beste zerbitzu eta jardueren jasotzaileei eta horiek guztiak emanen dituen enpresari, "Iruñerriko Zerbitzuak, E.A.ri", aurrerantzean "erabiltzaile" eta "IZEA" deituko zaie hurrenez hurren.

II. TITULUA. HORNIDURA ETA SANEAMENDU ZERBITZUEN EDUKIA ETA IZAERA PUBLIKOA

7. artikulua **IZAERA PUBLIKOA**

1. Uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuak publikoak dira eta, horregatik, haiek erabiltzeko eskubidea izanen dute hala eskatzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, zeren muga eta betebeharrak Ordenantza honek eta kasuan aplikatzekoa den legeriak jartzen dituztenak izanen baitira.

2. Ur-hornidura saneamendu zerbitzuen emakida Mankomunitatearen eskumena da, beste inorena ez, eta IZEAK kontratatuko ditu ematen diren zerbitzuak erabiltzaileekin, dagokion kontratua eratuz, hala behar denetan. Agiri horretan zerbitzuak emateko arau eta baldintzak ezarriko dira.

3. Lurrak, deposituak, hoderia, instalazioak eta beste eraikuntzak edo zerbitzuen emateari eratzikiriko beste ondasunak jabari publikoko ondasuntzat hartuak izanen dira.

4. Inola ere ez da ur-hornidura edo saneamendu zerbitzurik eman ahal izanen dohainik.

8. artikulua **ESKABIDEAK ETA INFORMAZIOA**

1. Edateko ur-hornidura edota saneamendu zerbitzua hartu nahi dutenek IZEARI eskaera eginen diote, Ordenantza honek zehazten den eran ur emaria zertarako erabili gogo duten eta zenbat behar duten, hondakin ura husteko zein sistema duten instalaturik edo proiektaturik eta nolako hondakin ura isuriko den adierazita.

2. IZEAK adieraziko du nolakoak izan behar duten instalazio partikularrek, ur-hornidura edota hondakin uraren eta gainerako isuriaren hustuketa eta arazketa egiten ahal diren ala ez, zer tarifa mota edo motak egokituko zaizkien eta zerbitzua emateagatik sortuko litzatekeen beste edozein kostu.

9. artikulua **ZERBITZUA EMATEKO ESKUMENAK**

IZEAK honako ahalmenak izanen ditu:

1. Edateko ur-hornidura eta saneamendua egiteko lan-proiektuak gainbegiratu, edo, hala behar balitz, haiek erredaktatu.

2. Unean dena delako sail, sektore, poligono edo kudeaketa atalean, ur-banaketa eta saneamendu sareak direla eta, egiteko diren hirigintza-plan eta proiektuei buruz informatu eta, halakoetan, bidezko zuzenketa eragin.

3. Ezarritako edo ezartzeko diren sare nagusietatik eta hornidura eman beharko den eraikin edo higiezinetaraino beharrezko instalazioak eraiki, hedatu, ustiatu eta mantendu, betiere Ordenantza honen

arabera IZEAr dagokionetan, eta ber gauza saneamendukoak, Ordenantza honetan eta indarrean dagoen legerian aurrekusten den baldintza eta ezaugarrietan.

4. Toki Entitateren batek auzune berri baten harrera egin aurretik, informatu hornidura eta saneamendu sareari dagokion guztian, delako urbanizazio-obra zerbitzuak berak egin ez duen kasuetan.

5. Erabiltzaileei hornidura eta saneamendu zerbitzuak eman, Ordenantza honekin eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz.

6. Hornidura eta saneamendu zerbitzuei dagokienez, obra berriek eta proiektaturiko jarduera aldaketetan bete behar diren baldintzez informatu eta gainbegiratu.

7. Hornidura edota saneamendu sare publikoetara egiteko diren lotura berriak informatu, izapidatu, gainbegiratu eta, hala behar denetan, haiek burutu, sortzen diren lan administratiboak eta ekonomikoak eginez.

8. Erabiltzaileekiko izanen diren kontratu-harremanak bideratzeko eta kontrolatzeko beharrezko diren izapide administratiboak, teknikoak eta juridikoak burutu.

9. Hornidura edota saneamendu zerbitzuak garaiz fakturatu eta kobraketa-eginpidea ziurtatu.

10. Hornidura edota saneamendu zerbitzuak direla-eta egindako eskariak, kexak eta erreklamazioak jaso, izapidetu eta haien erantzun.

10. artikulua

ZERBITZUAK EMAN BEHARRA

1. IZEA beharturik dago, dituen edo geroago beharrezko izan ditzakeen baliabideak erabiliz, ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak kokatzera erabiltzaileen lotune eta hustuketa guneetan, Ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera, eta aplikatzekoak diren hirigintza-legerian nahiz orokorrean ezarritakoak betez.

2. Zerbitzuak eman beharra, aurreko paragrafoan aipatutakoa, azpiegiturak eta instalazioak garatu eta burutzeko inbertsio planetan finkatzen diren epeek baldintzaturik eta haien menpe dagoela ulertuko da.

3. Zerbitzua eman beharra ondorengo lehentasunen arabera gauzatuko da:

a) Etxebizitzetako erabilpena. IZEA beharturik dago edateko ur-hornidura zerbitzua ematera, etxeke kontsumorako, halakoa eskatzen duten bizilagun eta entitate guztiei, delako kontsumoa Ordenantza honetan ezartzen diren baldintzetan eta bere eskumen eremuaren barnean dauden eraikin, lokal edo beste toki itxitan, betiere indarrean dagoen legeriak ezarritako betekizunak betetzen baldin badituzte. Kasu eta baldintza beretan emanen da saneamendu zerbitzua ere.

b) Industria erabilpena, komertziala, zerbitzu publikokoa, gizarte-interesekoa, suteen aurkakoa eta obrak egitekoa. Erabilpen hauetarako hornidura ematea zerbitzuak une bakoitzean eskura daukan ur edukia bezainbestekoa den baldintzaturik egonen da. Saneamendu zerbitzua ematea ere baldintzaturik egonen da, Ordenantza honetan zein aplikatzeko diren araudi orokorretan ageri diren betekizunak betetzen direnetz, aurrekusten eta iragartzen diren isurpenen ezaugarriak zer-nolakoak diren.

c) Nekazaritza eta abeltzaintza erabilpena, alderdi publikoak ureztatzeko, aisia-baratzeak eta behin behineko zerbitzu berezia. IZEA ez da beharturik egonen nekazaritza erabilpenerako edo lorategi pribatuen ureztapenerako ur-horniduraren zerbitzua ematera, non ez den ur-hornidura bat, izaera publikokoa, zati batez edo osorik lorategiak edota oihan

eremuak ureztatzeko erabili behar dena. Indarrean dagoen hirigintza-legeria betez aisia- baratzeak edo gisakoak egiteko eremuak sustatzen direnetan, ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak dagokion hirigintza erakundeak baimenduriko baldintzetan emanen dira.

11. artikulua

INTEGRATU GABEKO TOKI ENTITATEREN LUR-EREMUAN ZERBITZUAK EMATEA

1. Arau orokor gisa, ez da ur-hornidura eta saneamendu zerbitzurik ez da emanen Mankomunitatean uraren ziklo integralaren kudeaketarako sarturik ez dauden Toki Entitateen lur-eremuetan.

2. Hala izanik ere, salbuespen gisa eta kasu bakoitzean zer gorabeherak dauden ikusita, IZEAK ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak aipaturiko eremutik kanpo ere eman ahal izanen ditu, betiere horrek ez badie ekartzen inolako murrizterik mankomunaturiko zerbitzuei eta hornitzen den uraren kalitateaz inongo

erantzukizunik hartu gabe.

3. Jarduera hauek Mankomunitatearen Batzarre Nagusiak onetsi behar ditu espresuki, bai eta lege aldetik beharrezko diren erabaki eta baimenak lortuak izan.

4. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateko araupidea izaera bereziaz arautuko da, kasu bakoitzean, Mankomunitatearen eta zerbitzuak hartuko dituen Toki Entitatearen artean eginen den hitzarmenaren bitartez.

12. artikulua

HORNIDURA ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

1. Edateko ur-horniduraren zerbitzuaren definizioa honela osatzen da, alegia, ur gordina hartu, edangarri bihurtu, gorde eta Mankomunitatearen sareen bitartez banatu, erabiltzaileen harguneetaraino, Ordenantza honetan eta aplikagarri diren beste lege-xedapenetan aurreikusten diren dotazio eta kalitatearekin.

2. Hornidura-instalaziotzat hartuko dira hornidura zerbitzua ematean etengabeki erabilpenean daudenak, ondoren zerrendatzen diren mota horietako batekoak direnak:

Ur-ekartzekoak: hoderia multzoa, kontrol eta eragiketa-elementuak, obra zibilak eta beste elementu guztiak. hartzen dira halakotzat, beren zeregina kontsumo-eskariari erantzuteko beharrezko ur-emariak era egokian bildu eta tratamendu instalazioetara ekartzea baita.

Edateko uraren tratamendu plantak: gizakien kontsumoan erabilia izateko uraren garbiketa eta arazketa prozeduretan baliatzen diren makineria eta beste elementuak dauzkaten instalazioak dira.

Hornidura ur-bide orokorrak: kanalizazioak, hoderiak, erregulazio-elementuak, ponpaketa- estazioak eta haietako kontrol eta eragiketa-elementuak; horien guztien multzoa osaten dituzte, hornidura-iturrietatik abiatu eta ura tratamendu plantetara ekartzen dutenak, edota tratamendu planta hauetatik edo beste tokitatik, ura hornidura emateko guneetara edo erregulazio-deposituetara ekartzen dutenak ere.

Erregulazio-deposituak: tratatutako ura biltegitzeko eta erregulatzeko baliatzen diren egitura guztiak dira. Ur hori hornidura-ubideetan barrera banaketa hodiatar igortzen da, edota banakako erregulazio beste deposituetara, eta hauetatik banaketa hodiak abiatzen dira.

Hornidura-ubideak: hoderia eta haren kontrol eta eragiketa elementuen multzoa dira, ura ur- bide orokorretatik edo erregulazio-deposituetatik hartu eta hornidura gune ezberdinetara ekartzen dutenak.

Banaketa hodiak: hoderia eta haren kontrol eta eragiketa elementuen multzoa dira, suministraturiko nukleoaren barne-sareak osatzen dituztenak. Hauek bideratzen dute ura edozein hargunetara (higiezinak, ureztapen iturriak, sutetako ur-ahoa ...).

Hornidurako harguneak: hoderiak eta haien elementuak dira -sare nagusiarekiko lotura- pieza, erregistro-giltza, erabiltzailearen giltza eta hargune-hodia-, eta erabiltzailearen barne instalazioak eta banaketa sarea lotzen dituzte. Hornidura-hargunea, IZEAK zainketa eta mantentzean dauzkan erantzukizunei dagokienez, bide publikoaren muga bertan amaitzen da.

Higiezinetakako barne instalazioak:

a) Barruko instalazio orokorra: hoderia eta haren kontrol eta eragiketa elementuen multzoa da, eta hargunea eta barruko instalazio edo sare partikularrak eta deribazio kolektiboak lotzen ditu.

b) Barruko instalazio partikularra: instalazioaren zatia, kontagailuaren eta haren erabiltzailearen kontsumo gailuen artean dagoena. Kontagailua bide publikoan instalaturik dagoenean, barruko instalazio partikularra bide publikoaren amaieran hasiko da, lurzati partikularren muga. Hoderia-sarea, giltzak eta beste gailuak dira, finka partikularrean barrera hedatzen direnak, pasoko giltzatik eta dagozkion kontsumo guneetaraino. Honakoez osatua izanen da:

-Pasoko giltza: hornidura instalazio gutzira etetea ahalbidetuko duena.

-Deribazio partikularrak: pasoko giltza eta lotura-adarren artean dagoen ur-bideraketa zatia.

-Lotura-adarrak: deribazio partikularra eta kontsumo guneekin lotzen dituzten zatiak.

-Kontsumo guneak: edozein gailu edo ekipo banakako zein kolektibo, zuzenki erabiltzeko edota geroago ur bero sanitario bihurtzeko ur hotzaren hornidura behar duena.

3. Era orokorrean, hornidurak banaketa sareko hodiedatik emanak izanen dira. Bakar- bakarrik baimenduko da ur-hornidurak ur-bide nagusietatik ematea IZEaren onespenean adierazia izanik eta betiere hartarako txosten teknikoa eman duelarik, beharrezkoen egiaztatzaile.

4. Hornidura zerbitzu publikoko elementu materialen zaintza eta ustiaketa (ur-hartzeak, edateko ur-tratamendu plantak, erregulazio-deposituak, ur-bide nagusiak, banaketa ur- hodiak, banaketa sarea eta harguneak) IZEaren eskumen eskusiboak dira. Elementu hauetan baimenik gabe egindako edozein eragiketa gertatu dela eta, Mankomunitateak edo IZEak eraldatutako errealitate fisikia lehengoratu ahal izanen du, eraldaketa kausatu zuenaren kargu.

13. artikulua

SANEAMENDU ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

1. Saneamendu zerbitzuaren definizioa honela osatzen da, alegia, hondakin-urak Mankomunitatearen sarean hustu, garraiatu, erregulatu eta kontrolatu, bai eta hondakin ur horien arazketa egin. Hiri hondakin-urak honakoak dira, hots, etxebizitzetako hondakin-urak

edo haiek eta industriako hondakin-urak edota euritako isurketa-urak nahasian. Estolderia honakoa da, hots, estolda multzoa, eta hauek, beren aldiz, lurpeko ubide multzoa da, euritako urak edo ur zikinak biltzeko eta bideratzeko fabrikatu izan dena.

2. Arazketa jarduera honela osatua da, alegia, hiri hondakin-uraren tratamendua, eta, hala denetan, beharrezkoak diren bil-hodi edo kolektore nagusietatik haren bideratzea, araztegitik datorren emaria hartzeko askiak, hala nola isurtokiraino eramatea edo berriro erabiltzeko biltzeirratzea.

3. Saneamendu-instalaziotzat hartuko dira saneamendu zerbitzua ematean etengabeki erabilpenean daudenak, ondoren zerrendatzen diren mota horietako batekoak direnak:

- Higiezinaren barneko instalazioak:

a) Saneamendu barne instalazio partikularra: finka partikularren barrena hedatzen den hoderia eta beste elementuak, hondakin-urak gailu sanitarioetatik higiezinako instalazio orokorreko saneamendu hodiedara bideratzen dituztenak.

b) Saneamendu barne instalazio orokorra: hoderia multzoa, putzu eta ponpaketak eta haien kontrol elementuak, hondakin urak instalazio edo sare partikularretatik jaso eta higiezin edo lurzatiko harguneraino bideratzen dituztenak.

c) Jabetza partikularreko higiezin baten euri-uren instalazio orokorra: hoderia multzoa, putzu eta ponpaketak eta haien kontrol elementuak, euritako urak jaso eta higiezin edo lurzatiko euri-uren harguneraino bideratzen dituztenak.

-Saneamendu-harguneak: ur-hodiak eta haien elementuak -finka barruko kutxeta, hasierako kutxeta, hodia, lotura-, higiezinako hondakin-uren hustuketa sarea eta saneamendu sare nagusia edo arazketa sistema lotzen dituena. Saneamendu-hargunea, IZEak zainketa eta mantentzean dauzkan erantzukizunei dagokienez, bide publikoaren eta lurzati partikularren arteko mugan bertan amaitzen da.

-Saneamendu hodiak: hodian multzoa eta beste elementu guztiak, gune bateko sareak osatzen dituztenak; hondakin-urak harguneetatik zein hustubideetan gehitzen diren horietatik eramaten dituzte.

-Bil-hodiak: hodiak, erregistroak, gainezkabideak edo erregulazio elementu guztiak, hondakin-urak saneamendu hodiedatik hartu eta eskualdeko kolektoreetara, hodi isurle zein emari-eroale, ekartzen dituztenak.

-Hodi isurleak: bil-hodiedatik isurpenak jaso eta tokiko saretik eskualdeko kolektore edo tokiko arazketa instalazioetara bideratzen dituztenak.

-Eskualdeko kolektoreak: ur-ibilbide batean hirigune desberdinetako bil-hodiedatik hauen emaitzak jasotzen dituzten hoderia eta beste instalazioak; ur-emaitza horiek, grabitatez edo ponpaketaz, hondakin-uren araztegitara eramaten dituzte.

-Gorozki-urak arazteko instalazio partikularra: etxeko hondakin-urak, gero baldintza egokitan bil-hodietara edo ubideetara isurtzekotan, araztu eta kontrolatzeko elementu multzoa.

-Industriako urak arazteko instalazio partikularra: industria prozesu batetik eratorritako urak, gero baldintza egokitan bil-hodietara edo ubideetara isurtzekotan, araztu eta kontrolatzeko elementu multzoa.

-Ekaitzetako urak gordetzeko deposituak: ekaitzetan eroritako ur bolumen handiak une batez gordetzeko instalazioak dira, gero kolektore bakoitzetik bideratuko direnak, hustutako emaria erregulatuz, kolektore horiek gainkargaz jartzea ekiditeko.

-Hondakin-uren araztegia: eskualdeko saneamendu kolektoreetatik heldu diren urak arazten dituzten instalazioak, hodiak, makineria eta kontrol elementu guztiak osatzen dute. Gero, aplikagarri den legerian ezarritako baldintzak beteta, ibilgu publikotara isuriko dira.

-Saneamendu zerbitzu publikoko elementu materialen zaintza eta ustiaketa (harguneak, estolderia hodiak, hodi isurleak, eskualdeko kolektoreak, ekaitzetako urak gordetzeko deposituak eta hondakin uren araztegia) IZEAREN eskumen eskusiboak dira. Elementu hauetan baimenik gabe egindako edozein eragiketa gertatu dela eta, Mankomunitateak edo IZEAK eraldatutako errealitate fisikoa lehenagoratu ahal izanen du, eraldaketa kausatu zuenaren kargu.

14. artikulua

ERABILTZAILAREN ESKUBIDEAK

Egokitu dakizkiekeen beste batzuk deusetan galarazi gabe, Mankomunitateak espresuki honako eskubideak aitortzen dizkie ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuen erabiltzaileei:

1. Emandako ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuekin erlazionaturik dagoen mota orotako informazioa jasotzeko, hala nola:

a) Instalazio partikularrek izan beharko dituzten ezaugarriak buruz aholkularitza teknikoak, eta, era berean, ur-hornidura eta hustuketarako dauden aukerei buruz.

b) Zerbitzuak kontratatzeko baldintza juridiko betebeharrekoak buruz aholkularitza, bai eta erabiltzailea loturik geratuko deneko tarifa edo tarifei buruzko informazioa.

2. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzua eskuragarri izan, betiere baldin eta Mankomunitateak onetsiriko arauzko xedapenak betetzen badira, bai eta indarrean dagoen legeriak eskaturikoak ere.

3. Etengabeki eta puntualki kalitatezko hornidura eta saneamendu zerbitzuak jasotzeko, honakoetan zehazten direnak:

a) Indarrean dauden araudiek ezarritako osasun- eta higiene-baldintzak betetzea.

b) Horniduraren jarraikortasuna bermatuko duten baldintza teknikoak betetzea, ezinbesteko kasua izan edota kontratatutako erabilpenak xuxenki gauzatzeko mantentze lanak egin behar izan ezik, bai eta hondakin urak sare publikora egokiro hustea, Mankomunitatearen araudian eta aplikagarri diren beste arauetan ezarri baldintzak beteaz.

c) Ordenantza hau indarrean jarri baino geroago onetsitako hirigintza-jarduketetan, jarraian adierazten diren hornidura-zehaztapenak bermatuko dituzten baldintza teknikoak betetzea, ezinbesteko kasua izan, mantentze lanak egin behar izan edo sare nagusiaren aldaketa teknikoak gertatu izan ezik: hornidura presio nominala, hargunearen erregistro giltzan neurturikoa, ez 2,5 kp/cm² baino baxuagoa eta ez 7 kp/cm² baino altuagoa, guneko eraikin gehien hornidurarako, IZEAREN irizpidez hori galarazten duten arrazoi tekniko-ekonomikoak izan ezik. Kasu honetan presio multzo partikularra instalatu beharko da hornidura-hargune bakoitzean, dagozkion hirigintza-lanabesetan irtenbide hau agertarazia behar duelarik. IZEAK, zerbitzu arazoak direla eta, ezarritako baldintzetan hein bateko aldakuntzak egin beharrean aurkitzen denetan, ukituriko erabiltzaileei hori jakinarazi beharko die.

4. IZEAREN jarduketan indarrean dagoen legeriari zor dion errespetuaren barnean garatu daitezela, hark arautzen baititu bai kontratu-harremana eta bai zerbitzuen ematea bera, eta jarduketa horiek aintzat har ditzatela, gainera, IZEAK beretzat hartu dituen baloreak, alegia, errespetua, eraginkortasuna eta gardentasuna erabiltzaileei zerbitzua ematekoan.

5. Matxurak konpontzeko zerbitzu etengabeko bat eskura izatea.

6. Teknikoak, ekonomikoak edo giza harremanari dagozkiola ere, haren ustez gertatu diren akatsengatik erreklamazioak egin eta haietaz erantzuna jaso.

7. Ordenantza honetan zehar eta une bakoitzean indarrean dauden lege-araudietan harentzat jaso diren beste guztiak.

15. artikulua

ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK

Ordenantza honetan era berezitan arautzen diren egoerek beren aldetik erabiltzaile batendako sor ditzaketen betebeharrak zehatzez gainera, erabiltzaileak honako arau hauek bete beharko ditu, orokorki:

1. Hornidura- eta saneamendu-instalazioen baldintzak egiaztatu ahal izatea laguntzea, zerbitzuak ematea IZEARI ahalik hobekien suerta dakion, hori ahalbidetuko duten zereginak burutzeko laguntzea, hala nola hark eskaturiko hornidura eta saneamendu zerbitzuei, eta hauekin erlasionaturikoei buruzko datuak ematea, ahal den zehaztapen handienaz.

2. Etxe barneko instalazioak begiratu, zaindu eta erabili ahal den erarik txukunenean, eta ahalik eta lasterren gerta litekeen edozer matxuraren berri eman, batez ere haren ondorioz edateko uraren edo hondakin uraren ihesa erator daitekeelarik.

3. Ur kontsumoa norberaren beharretara mugatu, horrela kontsumo gehiegikeriarik suerta ez dadin.

4. Isurpenak mugen barnean egin eta, Ordenantza honetan, indarrean dagoen legerian eta Mankomunitateak onets dezakeen beste edozein arautan ezarritako baldintzetan, hondakin- urari gehitzen ahal zaion gai kutsakor oro murriztu, beste bitartekoez suntsitu daitezkeen hondakinak uraren bitartez desagertaraztea ekidinez, eta saneamendu sarearen bidez hondakin solido xehetuak suntsitzeari muzin egin.

5. Kontsumo ohizko erregimena, isurpenak edota hauen ezaugarriak modu nabarmenean aldatzen direlarik, IZEARI jakinarazi, hala nola kontsumituko den uraren zertarakoa aldatzen denean ere.

6. IZEAREN instalazioak aldatu edo haietan eragiteari uko egin, neurgailuak barne, erabiltzailearen jabegokoak izango balira ere.

7. Zerbitzuen prezioak puntualki ordaindu.

8. Kontratu-harremana zein kontraturiko zerbitzuen ematea arautzen duen indarreko legeriari lotu eta hura errespetatu.

9. Berrito saldu edo dohainik eman, aldi batean zein iraunkorki, IZEAK hornituriko ura edo hustuketa egiteko aukera. Betebeharrak honetatik salbu geratzen dira:

a) IZEAK hornidura edota saneamendu zerbitzua goi erregimenean ematen dieneko Toki Entitateak, 11. artikuluan aurreikusten diren kasuetan.

b) 23. eta 76. artikuluetan ezarritakoaz bat, hornidura zerbitzua kontagailu orokorraz kontratatzen den kasuetan. Kasu honetan, prezioa, epeak eta ordainketa baldintzak ezin izango dira Ordenantza honetan zein une bakoitzean indarrean dagoen prezioak arautzeko Ordenantzaren ezarritakoak baino kaltegarriagoak.

16. artikulua IZEAREN ESKUBIDEAK

Dagozkion ahalmenak deusetan ukatu gabe, modu orokorrean, honako eskubideak izanen ditu:

1. Emandako zerbitzuak dirutan kobratu, dagozkion Ordenantzaren onetsitako tarifen arabera.

2. Ur-hornidura edota saneamendu zerbitzuak eten edo murriztu, aurretik abisurik eman gabe eta beretzat inolako erantzukizunik hartu gabe, zerbitzu horietako behar nagusiek hala eginarazten edo komenigarri egiten dutenetan, edota ezinbesteko kasuetan.

3. Zerbitzuak hartzen dituen higiezinera sartu, ur-ihesa egon daitekeelako susmoa dagoen kasuetan eta neurketa taldeak erregistratu ez dituenean, haiek detektatu ahal izatearren.

4. Ur-hornidura edota saneamendu zerbitzuak bertan behera utzi, Ordenantza honetan aipatzen diren kasuetan eta ezarritako prozedurari jarraikiz.

5. Bere alde bakarretik kontratua deuseztatu, Ordenantza honetan aipatzen diren kasuetan eta ezarritako prozedurari jarraikiz.

17. artikulua IZEAREN BETEBEHARRAK

Ordenantza honetatik eta aplikagarri diren beste xedapenetatik sor litezkeen kalte suertatu gabe, IZEAK

honako betebeharrak izan behar dituzte, modu orokorrean:

1. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak eman, haien erregularitasuna mantenduz, eta Ordenantza honetan eta aplikagarri diren beste xedapenetan ezarritako baldintzak betetzen dituen orori zerbitzu horiek zabaldu.
2. Erabiltzaileei hornitzen zaieneko ura, Mankomunitatearen jabegokoak diren instalazioetan eramaten den bitartean, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baldintza tekniko- sanitarioak betetzen dituela bermatu.
3. Bere kargu, ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateko beharrezko diren instalazioak, Mankomunitatearen jabegokoak, zaindu eta haien mantentzea egin.
4. Mankomunitatearen araudien arabera, fakturazioa egin, une bakoitzean indarreko tarifak aplikatu.
5. Zerbitzuak ematean gerta daitezkeen edozein etengaldi edo aldaketa, egokientzat jotzen den prozeduraren bidez eta betiere egingarri baldin bada, 24 orduko aurrerapenaz erabiltzaileei abisu eman.
6. Une bakoitzean indarrean dauden arau zein xedapenak bete, bai kontratu-harremana eta bai ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea bera arautzen dituztenak.

III. TITULUA. ZERBITZUA HARTZEA APLIKAZIO EREMUAN

18. artikulua XEDAPEN OROKORRAK

1. Herritarrek ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak hartzeko eskubidea dute, eta horien instalazioa eta ondorengo mantentze egitea betebeharra da Mankomunitatearentzat, bi kasuetan ere, Ordenantza honetan eta aplikagarri den gainerako legerian ezartzen denarekin bat.
2. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak eratzea horiek emateko dauden ahalbide tekniko eta ekonomikoen menpe dago.
3. Mankomunitatean dauden Udalek, hirigintza planak egiteko eta haien garapenerako lanabesak onetsi baino lehenago, eta nolatan dela eraikitze edo obra egiteko baimena eman baino lehenago, urbanizazio izan zein eraikin izan, IZEArri txostena eskatu beharko diote, ur-hornidura eta saneamendua egiteko benetako aukerak zertan diren jakiteko, hala nola, planek, proiektuek edo aipatu obrek IZEAK eta gai hauei buruzko gainerako legerian ezarritako araubide teknikoak betetzen dituzten.

Era berean, ingurumenean eragina duten jardueretarako baimenak izapidetu baino lehenago, aplikagarria den araudiak exijitzen duen kasuetan, IZEArri txostena eskatu beharko diote, lege horrek eskatzen duen kasuetan, Mankomunitatearen eskumen diren alorren gainean. Araudi horren inguruan ematen diren baimen horien berri eman beharko zaio Mankomunitateari, non izapidetetan txosten igorle gisa Mankomunitateak parte hartu duen.

4. IZEAK, aipaturiko plan edo proiektuak jaso eta gero, betebeharreari eta aplikagarri den araubideari buruz txostena emanen du zehaztutako epean, egin beharrezko aldakuntzak adieraziz, hala beharko balitz, behin betiko onespena eman baino lehen.
5. Une orotan, Mankomunitateak ziurtatu ahal izan behar du ea hirigintza lanabes desberdinen behin betiko onespena artikuluko honetako 3. eta 4. ataletan aipatzen diren betebeharrak betez eman izan den.
6. Hirigintza plangintza eta burutzapen lanabesak behin betiko onetsiak izan badira, aurretik Mankomunitateari jakinarazi ez zaiolarik, eta, horrenbestez, IZEAK txostenik egin ezin izan duelarik, honek geroago izanik ere txostena igorriko du, dauden beharretara egokitzeaz eta indarrean dagoen legeriari buruz, eta berdin seinatuz egin beharrezko leudekeen aldakuntzak.
7. Mankomunitatean dauden udalek, ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak jasotzeko instalazioak beren esku hartu baino lehen, IZEAREN eskutik aldeko txostena eskuratu beharko dute, IZEAK eta indarrean dagoen gainerako legeriak gai horretan eta instalazio horiek egitean ezarritako baldintzapen teknikoak bete direnez. Behin obrak hartu eta gero, hori Mankomunitateari jakinarazi beharko zaio, adieraziz ea instalaziorik jaso ez den, eta horretarako zioa.
8. Hirigintza planen edo proiektuen burutzea bat ez baletor IZEAREN edo aplikagarri den legeriaren irizpide teknikoekin, Mankomunitateak beretzat gordetzen du buruturiko instalazioei hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateko eskubidea, bai eta hornidura eta saneamendu zerbitzuak kontratatze ere, egin beharrezko moldakuntzak egiten ez diren bitartean.

9. Instalazio berria bide publikoan barrena hedatzen bada, IZEaren aldeko txostenarekin dagokion Toki Entitateak jasotakoan, Mankomunitatearen jabegora pasako da, eta une horretatik aitzina haren mantentzea egiteko erantzukizuna hartuko du, berme aldia edo akats izkuturengatik kontratistak duen erantzukizuna ezertan ukitu gabarik.

I. KAPITULUA

HIRIGINTZA JARDUKETA BERRIAK ETA AZPIEGITURARIK ASKI EZ DUTEN EREMUETAKOAK

19. artikulua

DEFINIZIOA: HIRIGINTZA JARDUKETA BERRIAK

Ordenantza honen xedeetarako, hirigintza jarduketa berrizat jotzen da lurzoru urbanizagarritan egin behar diren antolamendu, plangintza eta eraikintzarako edozein lanabesetatik eratorritakoak, eta ondorioz, ur-hornidura eta saneamendu instalazioak sortu, moldatu edo handitu beharra ekartzen dutenak.

20. artikulua

DEFINIZIOA: AZPIEGITURARIK ASKI EZ DUTEN EREMUETAKO JARDUKETAK

Ordenantza honen xedeetarako, azpiegiturarik aski ez duten eremuetako jarduketatzat jotzen da finkatu gabeko hiri-lurzorutan egin behar diren plangintza eta eraikintzarako edozein lanabesetatik eratorritakoak, eta ondorioz, ur-hornidura eta saneamendu instalazioak moldatu edo handitu beharra ekartzen dutenak.

21. artikulua

HORNIDURA ETA SANEAMENDU ZERBITZUAK EMAN AURRETIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Auzune berrirako hargune edo hornidura izateko baimena alde aurretik honako baldintzak betetzearen menpe egonen da:

1. Auzune horietarako hornidura eta saneamendu modu egokian egiteko banaketa sareak eta beharrezko beste instalazioak urbanizazio proiektuan sarturik egonen dira, IZEak une bakoitzean ezarriko dituen irizpide teknikoan araberakoan. Dirlako sare eta instalazio horiek definiturik eta neurritz emanik egon beharko dira teknikari adituk erredaktatutako eta IZEak oniritzia emandako proiektuan. Azken hau, aplikagarri den legeriarekin eta Mankomunitatearen araubidearekin bat eta sustatzailearen edo auzune edo poligonoaren jabearen eskutik eta bere kontura egina beharko du. Urbanizazio proiektuak, Mankomunitatearen araubide teknikoan ezartzen diren betebeharez gainera, ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuei dagokienez ondorengo informazioak ere eduki beharko ditu.

1.1. MEMORIA: Hornidura eta saneamendurako hautatutako soluzioaren deskribapena, hala ur beltzena nola euri-urena, soluzioaren justifikazioa, materialak eta diametroak.

Euri-urak ibilgu publikora isurtzen diren kasuan, harrera eginen duen ibilguaren edukieraren justifikazioa.

1.2. KALKULUEN ERANSKINA, non hornidura eta saneamendu kalkuluen emaitzak agertuko diren, hala ur beltzenak nola euri-urenak. Hornidura sarerako kalkuluen hipotesiak gutxienez ondoko bi hauek izanen dira:

-Batez besteko ur-emia gehi sutetako ur-aho bat edo bi, urbanizazioaren tamaina zenbatekoa den.

-Gehienezko ur-emia gehi bi ureztatze-aho. Horietaz gain, Eranskin honetan derrigorrez laburpen-fitxa agertuko da, non honako hasiera-datuak azalduko diren:

1.2.1. Etxebizitza kopurua guztira edo metro koadro kopurua industrialdeetan.

1.2.2. Etxebizitza bakoitzeko zuzkidura edo industria eremuko metro koadro kopurua.

1.2.3. Ureztapen-gune zuzkidura, haien tamainak hala eskatzen badu.

1.2.4. Erabilitako gehienezko koefizientea.

1.2.5. Ur-aho eta ureztatze-aho bakoitzeko ur-emia. Kontuan hartutako ur-aho kopurua.

1.2.6. Hodieria guneen eta lotuneen eskema, kalkuluen emaitzen zerrendan daramatzaten izen berak daramatzatela.

1.2.7. Hargune kopuruaren justifikazioa.

1.2.8. Euri-uren emariaren kalkulua, birgertatze-aldia eta aztertutako ur-arroaren azalera agertzen den planoak.

1.2.9. Aztertutako hondakin-uren emaria.

1.3. PLANOAK:

1.3.1. Kokaera planoak, herriarekiko.

1.3.2. Oinplanoen irudiak, non sareen trazadura, diametroak eta hodieriaren materialak agertuko diren, hala nola jadanik dauden sareekiko lotunea eta euri-uren kolektoreetako isurpen tokia ere.

1.3.3. Hodieriaren babes elementuak.

1.3.4. Hornidura- eta saneamendu-harguneen kokaera.

1.3.5. Hodieriaren luzera-profilak, pendizeak eta sakonerak argiro zehazturik, eta oiplanoaren irudian ulertzeko moduen erlazionaturik.

1.3.6. Obra burutzeko beharrezkoak diren zehaztapenekin bat datozen xeketasun-planoak.

1.3.7. Kanpoko lurzatiekiko afektazio-planoak.

2. Onetsitako proiektuan definituriko obrak eta instalazioak, hala nola haiek burutzekoan, IZEAREN baimen espresarekin, sartuko diren moldakuntzak, oso-osorik urbanizazio edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta haren kargu, teknikari adituren zuzendaritzapean. Azken hau izanen da instalazioen burutzapenean erantzukizuna izanen duena.

IZEAK, lanak egiten diren bitartean, harrera egiteko informatu aurretik, eta zerbitzutan jarri baino lehenago, komeni uste dituen bezainbeste proba eta saio eskatu ahal izanen du, lanak burutzea egokiro egin dela eta proiektuan aurrirak ziren zehaztapen teknikoak bete egin direla bermatze aldera. Proba horiek dakartzaten gastuak urbanizazio edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kargu izanen dira.

Lanek harrerari buruzko txostena eman baino lehenago, sustatzaileak IZEARI hornidura eta saneamendu sareen planoak emanen dizkio, DGM edo DWG formatu digitalean, urbanizazio proiektuaren planoen bereizmen maila bera dutenak. Era berean, hornidura eta saneamendu hodierien trazaduren U.T.M. koordenatuak aurkeztuko dira, gutxienik kuxtetak, harguneak eta planta eta altxaera ebakidurak ongi adierazirik.

3. Urbanizazioko sareak eta Mankomunitatearen sare nagusiak lotzeko guneak IZEAK erabakiko ditu, bai eta sare nagusi edo instalazio horietan egin beharrek moldaketak edo berrindartzeak, urbanizazioak ekarritako eskari berrien ondorioz, eta urbanizazio edo poligonoaren sustatzaile edo jabearen kontura eta haren kargu eginen dira, dimentsioa, dentsitatea eta sortuko duten erabileraren intentsitatearen proportzioan.

4. Aurreko atalean arauturikoaren xedeetarako, IZEAK urbanizazioaren sustatzaileari edo jabeari proiektuan eta sare nagusiekiko lotura edo loturak egitean, hala nola sare horietan edo instalazioetan egin behar liratekeen moldaketa eta berrindartzeetan, kontuan hartuak izan daitezela urbanizazio edo poligono berrien beharrak, dagokion plangintzan haien eraikuntza aurrirak denean, edota burutzen ari den obraren izaerak hirigintza garapen berriak gertatuko direla iragartzen duenean.

Kasu hauetan, egokientzat jotzen den lanabes juridikoaren bitartez arautuko da uneko urbanizazioaren dimentsio, dentsitate eta intentsitateko beharrezkoak direnak baino gehiagoko gastuen aurrerapena. Gastu hauek geroago burutzen diren urbanizazioen sustatzaileei edo jabeei jasanaraziko zaizkie, dagokien proportzioan, dimentsio, dentsitate eta erabilera-intentsitatearen arabera.

5. Instalazio berriak bide publikoetan barrena zabaltzen badira eta haien eraikuntza alde aurretik IZEAK informatu duenari lotzen bazaio, horrek adostasun txostena emango du dagokion Toki Entitateak harrera egin dezan baino lehen, eta instalazio berriak, kondukzio nagusiari jadanik lotura eginik, sustatzailearen kontura, zuzenki Mankomunitatearen jabegora pasako dira. Bestelakotan, ez da zerbitzuen kontrataziorik baimenduko.

22. artikulua

IZAERA PRIBATUKO URBANIZAZIOAK

1. Urbanizazio obrak jabari publikoko parte izatera iragaten ez diren kasuetan, plangintzak urbanizazio pribatutzat jo izan dituelako, edo, jabari publikora pasatzen badira ere, zaintza izaera pribatukoa den

kasuetan, urbanizazioko jabeek eraturiko duten kontserbazio- erakundearen erantzukizuna izanen da bertan hedaturik diren sareen mantentzea eta kontserbazioa.

2. Kasu hauetan, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuan, uztailaren 26koan, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duenean, 69.2 artikulua exijitutako hitzarmena, urbanizatzaileraren eta Udalaren artean izenpeturikoa, IZEari igorri beharko zaio, urbanizazio proiektuarekin batera.

3. Hala izanik ere, sare nagusietan edukiera ahalmen aski dagoen ikustearren, urbanizazio barneko sarearen eraikuntzak ez du beste haietan eraginik, ur-hornidura eta uren hustuketa egiteko osasun-bermeak ematen direla eta erabilitako materialen iraunkortasuna egiaztatzearen, mankomunatutako udalak Ordenantza honen 18. artikulua xedaturikoari lotu beharko zaizkio, aplikagarri zaien orotan.

4. Urbanizazio hauetan garatu behar diren jarduketak edo erabilerak gauzatzeko aplikagarri den araubidearen arabera eskudun administrazioen baimenak eduki beharko dira.

5. Kontsumoen kontrola egiteko, kontagailu orokorra instalatuko da bide publikoan, homologatutako armairu edo erregistro baten barnean, eta urbanizazio pribatuaren eta bide

publikoaren arteko mugatik ahalik eta hurbilen. Kontagailu hori urbanizazioaren zaintza eta mantentzeaz arduratzen den entitateak kontratatu beharko du, eta gerta litekeen kontsumo alde ordaindu beharko du, kontagailu orokorrak kontrolatutakoa banakako kontagailuek kontrolaturiko kontsumoak baino handiagoa denean.

6. Hargune nagusietatik aitzina, urbanizazio pribatuko erabiltzaile desberdinei hornidura eta saneamendu zerbitzuak emango zaizkie, betiere beharrezko baimenak eskuratu dituztelarik.

7. Presio gaingoratzeko sistema baten ezarpena, hornidurarako barne instalazioak egokiro funtziona dezan hura beharrezkoa den kasuan, ordenantza honen 63. artikulua dioenari jarraikiz egin beharko da. Presioa gaingoratzeko sistema horiek urbanizazioaren sare pribatuetako zatizat hartzen dira, eta, honenbestez, hari dagozkio kontserbazioa, mantentzea eta konponketak egitea. Inolaz ere ezin egon izanen dira bide publikoan, eta hirugarren baten jabegoko finka batean instalaturik egonez gero, dagozkion pasaera-baimenak lortzea beharrezkoa izanen da.

8. Saneamendu zerbitzurik ematen ez denean eta zerbitzu horren soluzioa era autonomoan egiteko beharrezko baimenak eskuraturik badaude, hondakin-uren hustuketa sistemaren kontserbazioa, mantentzea eta konponketa lanak urbanizazioaren zaintzaz arduratzen den entitatearen kontura egingo dira.

9. Hondakin-uren ponpaketa sistema baten ezarpena, saneamendurako sareek egokiro funtziona dezaten hura beharrezkoa den kasuan, ordenantza honen 69. artikulua dioenari jarraikiz egin beharko da. Hondakin-uren ponpaketa sistema horiek urbanizazioaren sare pribatuetako zatizat hartzen dira, eta, honenbestez, hari dagozkio kontserbazioa, mantentzea eta konponketak egitea. Inolaz ere ezin egon izanen dira bide publikoan.

10. Inoiz urbanizazio pribatu horietarik jabari publikoan sartzea aurreikusten bada, IZEari jakinarazi beharko zaio, zeren eta, dagoen Udalak harrera egin dezan baino lehenago, txostena egin beharko baitu, non sare horien egoeraren azterketa egin eta beharrezko jotzen diren jarduketak proposatzen diren, Mankomunitateak beretzat hartuko baditu.

23. artikulua

OBRAK EGITEN DIREN BITARTEAN ZERBITZUAK IZATEA

Urbanizazioetako hornidura eta saneamendu sareak sare nagusietara lotu ahal izango dira, obrak egiten ari diren bitartean, gune batean edo batzuetan, aldez aurretik urbanizazio proiektuan definitu direnetan, ondoko baldintzen arabera:

1. Edateko uraren hornidura gune bakar baten bidez egingo da, eta beste lotune guztiak, egonez gero, itxita eta zigilatuta geratuko dira. Gune horretan, sare berriak egiteko obrak IZEak finkatu eta onetsitako ezaugarriak dituen kontagailu orokorra instalatzea barne izanen du, sustatzailearen kargu.

2. Saneamendu zerbitzurako loturak gune batean zein batzuetan egin ahal izanen dira. Bi mota horietako loturak egiteko IZEaren baimena eskuratu beharko da egin baino lehenago, eta obra horren kostuak sustatzailearen edo eskatzailearen kargu izanen dira.

II. KAPITULUA

JARDUKETAK GUNE URBANIZATUETAN

24. artikulua **DEFINIZIOA**

Ordenantza honen ondorioetarako, gune urbanizatutan egiten diren jarduketak plangintza eta egikaritzako edozein lanabesetatik eratorritakoak, hiri-lur finkatuan egin behar direnak, baldin eta lurzatietakoa eraikuntza lanen gehigarri diren beste obra batzuk egin beharra badira, direlako lurzati horiek hirigintza planean ezarritako aurreikuspenari egokitzen zaizkion hornidura eta saneamendu zerbitzuak izan ditzaten, orube izaera eskuratuko badute.

25. artikulua **HORNIDURA ETA SANEAMENDU ZERBITZUAK ESKURATZEA**

Behar bezala baimendutako harguneak izateko baldintza betetzea aski izanen da dagokion kontratua eratzearaz batera hornidura eta saneamendu zerbitzuak eskuratzeko.

Ur-hornidura eta hustuketa soil-soilik kontzertatu deneko eraikin, lokal edo etxebizitzan eta erabilerarako gauzatuko dira.

IV. TITULUA. HARGUNEAK

26. artikulua **DEFINIZIOA**

Ordenantza honen xedeetarako, hargune bide publikoan dagoen hodieria zatia da, ur- hornidura zein saneamenduko sare nagusia eta higiezin edo lurzati baten instalazio edo sare partikularra lotzen dituen.

Hornidura-harguneak hargune-giltza izena izanen duen giltza edukiko du, hau ere bide publikoan egotekoa dena. Hargune-giltzatik aitzina elikadura-hodia hasten da. Hau, neurketa ekipoa bide publikoan kokaturik ez dagoen kasuetan, higiezin edo lurzatiaren instalazio edo sare partikularrena da.

Saneamendu-hargunea bide publikoarekin muga egiten duen lurzati partikularren kanpoko ertzean amaitzen da. Ertz honetatik aitzina higiezin edo lurzatiaren instalazio edo sare partikularra hasten da.

27. artikulua **BAIMENA**

Higiezin bati hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateko harguneak egiteko baimena IZEari dagokio. Ordenantza honetan eta aplikagarri diren beste arauetan ezarrita dauden baldintzak betetzen badira, beharturik egonen da baimena ematera, araubide horien xedapenei jarraikirik.

28. artikulua **HARGUNE ESKUBIDEAK**

Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak lurzati bati emateko beharrezkoa den azpiegitura fisikoki izatean dautza direlako eskubideak, eta dagokion konpentsazio ekonomikoa ekartzen dute, Ur-hornidura, estolderia eta saneamendua, arazketa eta Uraren Ziklo Integralari dagozkion beste jarduketa eta zerbitzuak emateagatiko tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak arautzeko ordenantzaren arabera.

Hargune eskubideen azken prezioa behin bakarrik ordaindu beharko da, Ur-hornidura, estolderia eta saneamendua, arazketa eta Uraren Ziklo Integralari dagozkion beste jarduketa eta zerbitzuak emateagatiko tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak arautzeko ordenantzan xedaturikoarekin bat, eta ordaindu direlarik, ordaindu direneko instalazio edo higieziinei atxikirik geratuko dira, nahiz eta haien erabiltzailea edo jabea aldatu.

Hargune baten sekzioa handitzeak zenbateko bat sorraziko du, eta hori hargune berriaren eskubideen balioaren eta zaharraren balioaren arteko aldea, handitzea eskatzen den unean, kalkulatzat lortuko da.

29. artikulua **EGIKARITZA**

1. Harguneak sarearekin lotuko dira edo saretik aterako dira IZEak egokientzat jotzen duen gunean, beti baliatu behar direneko higiezin edo finka dagoen udalerraren barnean, eta higiezinaren barnean sartzea, elikadura-hodia, alegia, zonalde komun edo sarrera librekoetan barrena egin beharko da, eta inoiz ez barrundegitatik edo lokal pribatibotatik, ez eta zerbitzua eskatu izan den eraikinaz beste diren eraikinetatik,

lurzati edo finkatetik ere.

Elikadura-hodia zoruan sartuta dagoen kasuetan, sarrera libreko gunetan erregistroak jarri behar dira, haren ikuskapenerako eta ur-ihesen kontrolerako, gutxienez muturretan eta norabide aldaketa-guneetan.

2. Hargunearen diametroa sareen eskuragarritasunak baldintzaturik egonen da. Haien edukiera IZEAK zenbatetsiko du, kontuan harturik erabiltzaileak zer kontsumo eta isurketa adierazpena egin duen.

3. IZEAK erantzukizun orori ezetza emanen dio, zerbitzuetako akatsak erabiltzailearen barne-instalazioaren dimentsioei edo egokitzapenari egozten ahal bazaizkie.

4. Harguneari IZEAK egin ahal izango ditu, edo hark baimendutako beste norbaitek, ordenantza honetan xedatukoarekin, Mankomunitatearen araubide teknikoarekin, Eraikuntzako Kode Teknikoa eta aplikagarri den beste legeriarekin ados, kostuak eskatzailearen kargu direlarik, eta diru biltzea egikaritzea baino lehenago egin behar delarik, indarrean dauden tarifen arabera.

5. Harguneari eginak daudelarik eta IZEAREN adostasun adierazpena lorturik, Mankomunitatearen jabetzara pasatzen dira, jabari publikokotzat kontsideraturik, bide publikoan daudelako.

6. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzu publikoari atxikitakoaren ezaugarria izateagatik, toki publikoan instalatuak izango dira. Hala eta guztiz ere, erregistroak edo kuxtetak jadanik eraikita daudenean edo soilik toki pribatutan kokatu beste irtenbiderik ez dagoenean, honek ez die ezaugarri hura galaraziko, baina bai zerbitzuaren erabiltzaile onuradunarentzat haietarako irisgarritasuna mantendu beharra.

30. artikulua

LURZORU URBANIZAEZINEKO JARDUKETARAKO HARGUNEAK

1. Lurzoru urbanizaezineko hargune deitzen dira ur-hornidura edo/eta saneamendu zerbitzuak erabiltzaile bakar bati emateko, inguruetan sare nagusirik ez dagoen eta hirigunetik kanpo dagoen lurzati batean.

2. Lurzatiaren egingo den jarduketa edo lurzoruari eman behar zaion erabilera eskudun administrazioak baimendua beharko du, aplikagarri zaion araudiaren arabera.

3. Lurzatiari ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateko beharrezkoak diren instalazioak eta obrak egikaritzeaz sortzen diren gastuak, hiriguneko sare nagusiekin lotura egin artean, osorik harguneari eskatzen duenaren kargu izanen dira.

4. Neurketa ekipoa bide publikoan instalatua izanen da, homologaturiko armairu edo erregistro baten barnean. Hau, harguneari hasieran kokatua egongo da, hirigune barnean sare nagusiarekin lotuko den tokiaren ondo-ondoan. Hornidura-harguneari erabilera bat baino gehiagorako emango balitz, kontsumo horien gaineko kontrola IZEAREN aburuz izango da banakakoa edo ez, erabilera bakoitzerako eskatzen diren ur-emarien arabera.

5. Harguneari bakar batetik erabiltzaile bati baino gehiagori eman ahal izango zaio ur- hornidura, betiere ondoko baldintza hau betetzen bada, hots, hornidura zerbitzurako kontagailutik aitzina, edo saneamendu zerbitzurako saneamendurako edota euri-urendako kolektoreekiko lotunetik aitzina kokatuak diren hoderia zatien gaineko titularitatea dela eta, ondasun- eta eskubide-komunitatea osatzen badute erabiltzaileok, eta IZEAK hala egiteko baimena ematen badu.

6. IZEAK bere gain hartuko ditu hornidura-harguneari hauen zaintza, mantentze eta konponketa lanen gastuak, neurketa ekipoen armairu edo erregistroraino partean.

7. Presio gaingoratzeko sistema baten ezarpena, hornidurarako barne instalazioak egokiro funtziona dezan hura beharrezkoa den kasuan, ordenantza honen 63. artikulua diotenari jarraikiz egin beharko da. Presioa gaingoratzeko sistema horiek erabiltzailearen sare pribatuetako zatitzat hartzen dira, eta, honenbestez, hari dagozkio kontserbazioa, mantentzea eta konponketak egitea. Inolaz ere ezin egon izanen dira bide publikoan, eta hirugarren baten jabegoko finka batean instalaturik egonez gero, dagozkion pasaera-baimenak lortzea beharrezkoa izanen da.

8. Saneamendu-harguneari hasierako kutxeta lurzati pribatuaren eta bide publikoaren arteko mugan kokatua izanen da, hiriguneko saneamendu sarearekiko loturaren ondoan.

9. IZEAK bere gain hartuko ditu saneamendu-harguneari hauen zaintza, mantentze eta konponketa lanen gastuak, betiere bide publikoaren azpian eta lotura dueneko hiriguneari barnean kokatua baldin bada.

10. Saneamendu zerbitzurik ematen ez denean eta zerbitzu horren soluzioa era autonomoan egiteko beharrezko baimenak eskuraturik badaude, hondakin-uren hustuketa sistemaren kontserbazioa,

mantentzea eta konponketa lanak erabiltzailearen kontura egingo dira.

11. Hondakin-uren ponpaketa sistema baten ezarpena, saneamendurako barneko sareek egokiro funtziona dezaten hura beharrezkoa den kasuan, ordenantza honen 69. artikulua dioenari jarraikiz egin beharko da. Hondakin-uren ponpaketa sistema horiek erabiltzailearen sare pribatuetako zatitzat hartzen dira, eta, honenbestez, hari dagozkio kontserbazioa, mantentzea eta konponketak egitea. Inolaz ere ezin egon izanen dira bide publikoan.

12. Zerbitzuak ematea modu egokian egiten dela bermatzearen, erabiltzaileak beti jabearen baimena eduki beharko du, zerbitzurako elementu materialek hirugarren baten jabetza pribatua ukitzen duten kasu guztietan.

31. artikulua **ERABILERA GABEKO HARGUNEAK**

Hargune baten bitartez emandako hornidura kontratu guztiak amaiturik edo deuseztaturik daudelarik, eta hiru hilabete iraganik erabilerarik batere izan gabe, hargune adarrak IZEAREN esku gelditzen dira, eta hark egoki uste dituen erabakiak hartu ahal izango ditu adar haiekiko. Hargunea berriro erabiltzeko moduan paratzeak ekarriko lituzkeen lanak erabiltzaile berriaren kargu egonen dira.

32. artikulua. **KONTRATATU GABEKO HARGUNEAK**

IZEAK txostena eman eta geroago urbanizazio proiektuan moldakuntza bat egin delako, IZEARI jakinarazi gabe, hargunerik kontratatu gabe geratzen bada urbanizazioan, sobera diren hargune horien deuseztapena hasierako proiektuaren sustatzailearen kontura izango da, lan hori kontsideratua izango baita higiezina edo lurzattia hornidura eta saneamendu sare nagusietara lotzeko egin beharretako.

I. KAPITULUA. **HORNIDURA-HARGUNEAK**

33. artikulua **HORNIDURA-HARGUNEKO ELEMENTUAK**

Hornidura-harguneak gutxienez honako elementuak eduki beharko ditu:

1. Ur-hartze gailua: banaketa sareko hodiaren gainean kokaturik dago, eta ura hornidura- hargunearen adarrera sartzen uzten du. Giltza eduki beharko du, edo hartze-eraztuna, eta IZEAK bakarrik edo honek baimendurikoak erabili ahal izanen du.

2. Hargune-hodia edo adarra: Ur-hartze gailua eta eten-giltza edo erregistro-giltza lotzen dituen hodi zatia da.

3. Eten-giltza edo erregistro-giltza, finkaren kanpoko aldean dagoena; hemendik aitzina hargune-giltza izena emango zaio: IZEAK egokien uste duen hargune adarraren tokian kokaturik dago, IZEAK homologaturiko erregistro edo kutxetan, eraikinaren, lokalaren edo lurzatiaren ondoko bide publikoan, 29. artikuluan 6. paragrafoan ezarritakoaz izan ezik. IZEAK bakarrik edo honek baimendurikoak erabili ahal izanen du.

IZEAK hargune-giltza instalatuko du bide publikoan, antzinako hargune-giltza gabeko harguneetan edo giltzaduna baina giltza jabetza pribatua dagoenetan.

34. artikulua **EMATE BALDINTZAK**

1. Ur-hornidura hargune bat emateak ondorengo baldintzak betetzen direla eskatuko du:

a) Hornidura behar duen higiezin edo lurzattia uraren ziklo integralaren kudeaketa alorrean Mankomunitateak duen jarduketaren eremuaren barnean egotea.

b) Hornidura behar duen higiezin edo lurzatiak barneko instalazioak edukitzea, erabiltzeko moduan edo proiektuan, Ordenantza honen eta beste lege aplikagarrien araubideari egokituak.

c) Ura ureztapen erabilera besterik erabiliko ez den kasuan izan ezik, hornidura behar duen higiezinak hondakin-urak isurtzeko hargunea edukitzea, edo bestela haien hustuketa egiteko sistema bideraturik edukitzea, eta honela bada, horretarako behar diren baimenak ere edukitzea.

d) Higiezinaren mugakide diren bide publikoetan instalaturik, dagokion Toki Entitateak harrera eginik, eta erabiltzeko baldintza egokitan, ur banaketa sareetako kondukzio publikoak egotea, eskaturiko emaria emateko edukiera nahikoa dutenak, baldin eta jadanik ematen diren horniduretan, edota lehenagotik jarduketa-eremu horretan proiektaturik eta hitzarturik daudekeen horniduretan, ematen den zerbitzuaren kalitate galerarik ekartzen ez badute.

2. IZEAK hornidura daukaten finketako barneko instalazioa ikuskatu ahal izango du. Instalazioak beharrezko baldintza teknikoak betetzen ez baditu, erabiltzaileari aurkitutako akatsen berri emango dio, jarriko den epean haien moldaketari ekin diezaion. Epe hori iraganik, egoera desegokiak bere horretan badirau, IZEAK horniduraren etena eragingo du.

35. artikulua **ESKABIDEEN IZAPIDAKETA**

1. Hornidura-hargunea izateko eskaera IZEARI egingo dio eskatzaileak, honek eman inprimaki normalizatuan. Aipatu eskari-orri horri gutxienik honako dokumentazioa gehitu beharko zaio:

a) Jabetzako eskritura edo hargunea eskatzen deneko higiezinaren erabiltzeko aukera egiaztatzen duen agiria.

b) Udalaren eraikitze lizentzia edo haren ordezkotako agiria, eta hala beharko balitz, ingurumen-baimena, gai honetan aplikatzeko den araudiarekin bat eginez egokia dena.

c) Hala beharko balitz, ezarri beharko litzatekeen zortasunaren titulartasuna, direlako hargunearen instalazioendako, edo haietarako beharrezkoak izan litezkeen sareen luzapenendako, esate baterako, hargune-giltzaren eta hornitu behar den lurzatiaren artean dauden elikadura-hodien zatiak.

d) Kokaera-planoa.

2. Eskatzaileak ekarritako datuak, higiezinaren ezaugarriak eta banaketa sareen egoera zein den ikusita, IZEAK eskatzaileari agiri gehigarriak aurkeztea eskatu ahal izango dizkio. Era berean, eskatutako hargunea emateko ala ukatzeko erabakia jakinaraziko dio, ukapena denean zergatien berri ere emanez.

3. Eskaria onarturik, IZEAK eskatzaileari delako hargunea zein baldintzari egokitu beharko zaion adieraziko dio, hala nola emate- eta egikaritze-baldintzak ere.

36. artikulua **EMATE-GAIA**

1. Edateko uraren banaketa-sareetako harguneez emateak eraikuntza-unitate independentea osatzen duen higiezin bakoitzeko egingo dira. Bide publikorako sarrera zuzena izango du eta hargunea hitzartu den erabilpenerako besterik ez da emango.

2. Eraikuntza-unitate independentetzat honakoa hartzen da: etxebizitza edo lokal multzoa, guztientzat atari bakarra eta eskailera zulo ere bakarra guztientzat dutenak, hala nola merkataritza- eta industria- eraikinak, pertsona fisiko zein juridiko bakarrarenak direnak, eta bertan merkataritza- edo industria-jarduera bakarra garatzen direnekoak. Ilarako etxebizitzak edo familiabakarreko ilarakoak ere, garaje sarrera bakarra guztientzat badute, eraikuntza-unitate independentetzat hartuko dira.

3. Hargune batetik hornidura bat baino gehiago duten finka orotan, barneko instalazio orokorrak kontagailu batera eduki beharko du, eta hauek kokaera eta ezaugarriak Ordenantza honetan eta aplikagarri diren beste araubideetan ezarritakoaren arabera izango dira.

4. Eraikin bakoitzean egon daitezkeen merkataritza- edo negozio-lokalek hornidura independente eduki beharko dute, eta haien kontagailua eraikineko kontagailu baterian egongo da. Ordenantza honetan espresuki aipatutako kasuak horretatik at daude, haiei baimena ematen baitzaie hornidura kontagailu orokor batez kontratatu dezaten.

5. Higiezin batean hargune berria egiteko beharrezkoa izanen da erabilpenik gabe geratzen diren guztiak hasierako gunetik suntsitzea, kostua eskatzailearen kontura eta bere kargu izanen delarik. IZEAK edo hark baimena emandako enpresa batek egingo du sare nagusian egin beharrekoa, eta eskatzaileak suertatzen den obra zibila bere osotasunean.

37. artikulua **HORNIDURA-HARGUNE INDEPENDENTEAK**

Teknikoki bideragarria den guztietan, eraikinaren hargune orokorraz beste hornidura- harguneez egingo dira, beheko solairuan dauden merkataritza- edo negozio-lokalen kontsumo-erregimenak eraikinaren

gainerako instalazioari eragiten edo funtzionamendu egokia eragozten duen kasuetan, edota hornidura jakin bat kontrolatu beharrak hala eskatzen badu.

38. artikulua **KONTSERBAZIOA, MANTENTZEA ETA KONPONKETAK**

1. IZEAK bere gain hartuko ditu harguneen kontserbazio, mantentze eta konponketa lanen gastuak, bide publikoan doazen partean.

Hargune zaharkituetan, hargune-giltzarik gabeak direnean edo giltza jabetza pribatuan kokaturik dagoenean, IZEAREN erantzukizuna lurzatiaren edo jabetza pribatuaren muga lerroraino iritsiko da.

Jabetza pribatuaren eta bide publikoaren muga-lerrotik hara dauden instalazio guztien mantentzea eta erantzukizuna, elikadura hodi zatiak izan edo kontagailu multzoak berak izan, esate baterako, erabiltzaileentzat izango dira, eta, horien faltan, finkaren jabearen edo jabeentzat.

2. Mantentze lanetariko bat denez gero, IZEAK hargune zaharra hargune berri batez edo zenbait zahar hargune berri bakar batez ordezkatu ahal izango ditu, hargune zaharren edukiera betiere errespetatuz.

3. Hargune bat beste batez ordezkatzeko arrazoia dagoenaren diametroa eskasa dela izango balitz, kontsumoak handitu direlako, sekzio handiagoa behar duen hargune berria eskatu duenak edo dutenek hartu beharko dute beren kargu.

39. artikulua **SUTEEN KONTRAKO BABES-INSTALAZIOETARAKO HARGUNEAK**

1. Oro har, eskatzen deneko finketan instalatu ahal izanzen dira harguneak, ur-aho, suteen kontrako babes-sareak eta sute-ahoak elikatzeke soil-soilik.

Su itzalketa egiteko sistemak eduki eta, horietarako, sare publikotik hornidura beharra duten eraikinetan, harguneak edo deribazio independenteak izan ahal izango dituzte, erabilera horretarakoak, edo bestela hornidura jaso hargune edo zerbitzu-deribazioaren bidez, honako baldintzen arabera:

a) Hargune independente bidezko hornidura, bakarrik sutetarakoa, hargune-giltza bide publikoan duena eta kontagailurik gabe, baldin eta presio gaingoratzeko erreserba- depositudun ekiporik ez dagoenean, edo instalazioa bere zati gehienean agerian edo ikuskagarri geratzen denean.

b) Erreserba-depositua duten edo/eta barneko sare lurperatuak edo zoruan sartuak dituzten instalazioetarako hornidurak kontsumoen kontrola egiten duen kontagailu batez eginen dira, eta berdin hargune independentek edo hargune nagusiaren deribazioek hornitutakoenak, oso konplexuak izateagatik edo probatarako maiz erabiltzen direlako kontsumoen kontrola egin behar baitzaie.

c) Sutetarako eta zerbitzuetarako kontsumoen kontrola hargune bakarra eta kontagailu bakarra duten instalazioak onartuko dira, betiere zerbitzuetako instalazioarentzat aurreikusitako kontsumoa su itzalketako instalazioarentzat aurreikusi dena baino handiagoa denean, edo biak berdinak direnean, zeren eta ezarriko den kontagailuaren dimentsioak eraikinaren erabilera arrunteko (zerbitzuak) kontsumoen irakurketan zehaztasuna eta fidagarritasuna bermatuko baititu.

d) Zerbitzuetarako eta sutetarako hargune bakarraren bitarteko hornidura onartuko da, eta bi erabilera horien sektorizazioa, dagozkien deribazioen bitartez, baldin eta deribazio bakoitzarekiko kontrola bide publikotik egiten bada, edo, hori ezin egin delarik, eraikineko toki edo lokal komun batetik, bide publikotik sarrera duena eta eraikinaren harguneko sarreraren ondoan egon beharko dena.

2. IZEAK suteen kontrako babes-instalazio partikularren kalkulua, diseinua eta funtzionamenduari buruzko erantzukizun orori ezetza emanen dio.

40. artikulua **OBRETARAKO HARGUNEAK**

Obretarako behin-behineko harguneak soil-soilik eraikitzaileek lurzatiaren urbanizazio lanak egin bitartean edo higiezinaren eraikuntzan edo birgaitze lanetan ura eduki dezaten ematen direnak dira.

IZEAREN zehaztapenen arabera egikarituak izango dira, eta kontagailua ezarriko zaie. Kontagailu hori eta haren pasoko giltzak IZEAK homologatutako erregistro edo kuxteta batean sarturik egongo dira, eraikuntza egiten den tokitik hurbil eta espaloien altueran.

Obra bat bukatu bezain laster edo bertan gehiago erabili behar ez denean, hargunearen titularrak IZEARI

hori jakinaraziko dio, honek dagokion zereginari ekin diezaion, hots, hargunearen deuseztatzea, hala behar denean, eskatzailearen kontura eta haren kargu eginen dena.

41. artikulua **HARGUNEAREN BABESA**

1. Erabiltzaileak bere harguneeen funtzionamenduan aurkitzen duen edozein akats edo ur- ihes jakinarazi beharko dio IZEARI. Era berean, beharturik dago bere barneko instalazioan gertatzen den edozein ur-ihes, akats edo intzidentzia ahalik eta lasterren konpontzera.

2. Xede hauetarako, finka, lokal edo higiezin orok uraren hustuketa librea egiteko hustubide aski izan behar du, kontratatu den hargunetik eman ahal zaion gehienezko ur-emia bezainbesteko edukiera izanen duena. Hori horrela, eraikinari kalte materialik ez eragiteko, bai eta barnean dauden gaiak edo gailuak ez matxuratzeko xedez, IZEAK betebeharrak ez betetzetik eratorritako inongo erantzukizunik ez baitu bere gain hartuko, ez eta hirugarren aitzonean ere.

42. artikulua **HORNIDURA-HARGUNEA KARGAN JARTZEA**

1. Hornidura-hargunearen adarra instalaturik, IZEAK kargan jarriko du erregistro-giltzaraino. Erabiltzaileak ezin izanen du inongo kasutan ere giltza hori maneiatu.

2. Hornidura ematen hasi eta zortzi eguneko epea iraganik, hornidura-harguneari buruz inolako erreklamaziorik egin ez delarik, finkaren jabea instalazioa ontzat ematen duela ulertuko da, instalazioaren bermealdiak ematen dizkion eskubideei ezertan eragin gabe ere.

II. KAPITULUA **SANEAMENDU-HARGUNEA**

43. artikulua **SAREAREN DERRIGORREZKO ERABILERA**

1. Saneamendu sare nagusia beren aurrealdean duten eraikin eta industria instalazio guztiek beren saneamendu sare partikularra beste hari lotu beharra dute, Ordenantza honen eta kasuari aplikagarri zaion legeriaren xedapenen arabera.

2. Ur beltzak daramatzan sarean etxeko hondakin-urak edo industriakoak isurtzea besterik ez da onartuko, eta debeku da euri-urak ekartzen dituen beste ezein zorrotan edo beste kondukziotatik heldu direnak, izan dadin etxe-estalki, drainadura, garaje-maldaren kanpoko sareta, edo bide zabal edo urbanizazio, hauek euri-uren sareari lotu beharko baitzaizkio, halakorik dagoenetan, eta, bestela, bide publikora edo zoladurara zuzenean isuri.

3. Era orokorrean, etxebizitza multzo bakoitzaren ur beltzak, familiabakarreko bakoitzarenak, izan dadin isolatua edo ilarakoa, edota industria edo merkataritza-jarduerakoak, dagokien saneamendu sare nagusira pasako dira, hargune independenteren bitartez. Hargune bakoitzaren trazadura zerbitzua ematen dueneko lurzatian barrena joango da, eta debeku da harguneeen trazadura edo kutxeta konpartituak eraikitzea zerbitzua ematen duteneko etxebizitza edo jarduera kokatzen diren lurzatia ez diren guztiak erabiltzeko.

4. Euri-urak eta ur beltzak batera biltzeko saneamendu sare unitarioa egonez gero, eraikin berrirako eraikuntzak edo daudenen birgaitze lanek eduki behar dute beren barruan egiteko diren barne sare eta kutxeta independenteak egikaritzea. Hauek kutxeta bikoitz batean bilduko dira (euri-ur/ur beltza), behin-behinekoan bi isurpenak batuko dituenak. Bide publikoan eraikiko da, aurrealdearen ondoan, eta bertatik bi hodi aterako dira, bata putzu edo kolektore unitarioa konektatuko dena, eta bestea bi muturretan itsuturik geratuko da, saneamendu sare berezituak eraikitzeko aurreikuspena gauzatu arte.

5. Salbuespen moduan, eta arrazoi teknikorengatik bide publikoan zehar doan kolektorearekin lotura zuzena ezinezkoa denean, lurzatiaren artean bide-zortasuna eratu ahal izanen da, adar pribatuen artean lotura toki errazago batean eraiki ahal izateko. Dagokion proiektua aurkeztu beharko da, hala nola hargunearen trazadurak eragiten dien jabeen baimena ere. Adar komun horren kontserbazioa, eremu pribatuan zehar doan trazadura zatian, instalazioaren jabeek egokituko zaie, eta hauek instalazioaren erabiltzaile guztiak bilduko dituen jabe-komunitatea eratu beharko dute, haren kontserbazioaz, mantentzeaz eta konponketaz arduratu beharko dena.

6. Finkaren aitzonean saneamendu sarerik ez dagoenean, ez bada isurpenen hustuketarako soluzio autonomoa baimendu delako kasuetan, ez zaio oniritzi emanen eraikuntzari eta ez orubearen erabiltzeari, bai, ordea, baldin eta sustatzaileak eraikuntza proiektuan Mankomunitatearen saneamendu sarearekin lotura bat aurreikusi badu, sare horren luzapen baten bitartez. Proiektatu diren hargune eta ur-hodien sarea

jabetza publikoko bide azpian joaten badira, eta IZEAREN araubide teknikoaren arabera eraiki izan badira, dagokion Toki Entitateak harrera egin eta gero, Mankomunitatearen saneamendu sareko parte izatera pasako dira, eta kontserbazioa haren kontura izanen da.

7. Ur beltzen hustuketa egokia egiteko beharrezko obrak burutzen ez diren bitartean ez da ur- hornidura zerbitzua emanen.

8. Ur beltzen hustuketa putzu septiko bidez edo ibilgu publikora isuriz egiten delako, saneamendu sarearekin loturarik ez duten eraikinak, eta saneamendu sarea 100 metro baino hurbilago egongo balitz, hargunearen trazadurak ukitu bideen lerrokadura jarraituz neurturik, eta teknikoki bideragarria balitz, derrigorturik leudeke hustubide hori sarea handituz sarearekin lotzera, finkaren barneko sarea aldatzera, delako sarearekin lotzeko, eta antzinako sistema deuseztatzea. Emandako epea iraganik eta hargunea oraindik eskatu ez bada, IZEAK hornidura eten egingen du.

9. Teknikoki beharrezko jotzen denean, onetsi ahal izanen da hainbat erabiltzailek hargune berean isurpena egitea, betiere erabilera bera egiteko delarik eta aipatu erabiltzaile guztiek osaturiko jabe komunitatea eratzen bada. Komunitate horrentzat elementu komun izanen dira eremu pribatuan zehar doazen hodi guztiak, barneko saneamendu-instalazio bakoitzaren eta zerbitzua ematen dien hargunearekin lotura egiten dutenak.

44. artikulua

SANEAMENDU-HARGUNEN ELEMENTUAK

1. Saneamendu hargunak ondorengo elementuak izan ditzake:

a) Hasierako kutxeta edo eraikinaren putzu nagusia: hau da sare pribatuaren eta sare publikoaren arteko lotunea, non eraikinetik edo lurzatiatik datozen hodiak iristen diren eta sare nagusirako kolektorea ateratzen den. Jabetzaren kanpoko mugaren ondoan kokaturik dago.

b) Hodia edo hargunearen adarra: jabetzaren mugatik edo hasierako kutxetatik eta saneamendu kolektorera doan hodi zatia da.

c) Lotura: hargunearen hodia eta saneamendu kolektorearekin bat egiten duten puntua.

2. Saneamendu-hargunak hodia beti eta, gutxienez bi muturretako bat, erregistragarri, gehienetan, gune publikoan eduki behar du, baldin eta aplikagarri diren arauak ez badute, ez Mankomunitatearen araubide teknikoak, eta ez izaera orokorrekoak, bi muturretan erregistroak instalatu beharra adierazten, edota, aitzitik ere, bat bera ere ez izateko aukera espresuki ematen ez badute.

3. Saneamendu-hargunek beren luzera guztian eta loturetan estankotasuna ziurtaturik izan behar dute, diseinuan eta eraikuntzan. IZEAK, Mankomunitatearen araubide teknikoarekin eta aplikagarri den beste legeriarekin bat, exijitu ahal izango du kutxetak eraikitzea, bai hargunearen hasieran eta bai sarerako loturan, hala nola ur-emarien kontrol eta edukiera begiratzeko kutxetak eraikitzea eta dagozkien neurketa sistemak instalatzea. Era berean, IZEAK eraikinaren barnean kutxetak eraikitzea exijitu ahal izanen du.

45. artikulua

ISURPENEN KONTROLA

Otsailaren 20ko 12/2006 Foru Dekretuan ezarritako kontrol eta mugapen irizpideak aplikagarriak izango dira. Haren kariaz, saneamendu publikoko kolektoreetara ur isurpenak egitea ekar dezaketen jardueren ezarpenari eta funtzionamenduari aplikatzen ahal zaizkien baldintzapen teknikoak ezarri ziren.

IZEAK isurpenen kontrol zehatza beharrezkotzat jotzen duen kasuetan, hark diseinatu eta adieraziko du erabili behar den sistema, hala nola dagokion neurketa gailuaren kokapena.

IZEAK exijitu ahal izango du isurpenen laginak hartzeko kutxeta eraikitzea, berak onetsitako diseinuaz egina.

46. artikulua.

EMATE BALDINTZAK

Hondakin uren saneamendu hargune bat emateak ondorengo baldintzak betetzen direla eskatuko du:

a) Hornidura behar duen higiezin edo lurzatia uraren ziklo integralaren kudeaketa alorrean Mankomunitateak duen jarduketa-eremuaren barnean egotea.

b) Hornidura behar duen higiezinak barneko instalazioak edukitzea, erabiltzeko moduan, Ordenantza honen eta beste lege aplikagarrien araubideari egokituak.

c) Efluentek aplikagarri den legeriak ezartzen dituen mugapen fisiko-kimikoak bete ditzala.

2. IZEAK hornidura daukaten finken barneko saneamendu instalazioa ikuskatu ahal izango du. Instalazio horrek arauzko baldintzapen teknikoak betetzen ez baditu, erabiltzaileari aurkitutako akatsen berri emango dio, jarriko den epean haien moldaketari ekin diezaion. Epe hori iraganik, egoera desegokiak bere horretan badirau, IZEAK horniduraren etena eragingo du.

47. artikulua **ISURPEN KOTA**

Hondakin-uren isurpena egitekotan, eraikinaren irteeraren eta kolektore publikoaren giltzaren artean 50 cm baino altuera tarte handiagoa ez badago, eskatzaileak ur beltzak goratzeko multzoa instalatzeko eta mantentzeko ardura hartu beharko du.

48. artikulua **ESKABIDEEN IZAPIDAKETA**

1. Saneamendu-hargunea izateko eskaera IZEARI egingo dio eskatzaileak, honek eman inprimaki normalizatuan. Aipatu eskari-orri horri gutxienik honako dokumentazioa gehitu beharko zaio:

a) Jabetzako eskritura edo hargunea eskatzen deneko higiezina erabiltzeko aukera egiaztatzen duen agiria.

b) Udalaren eraikitzeko lizentzia edo haren ordezkotako agiria, eta hala beharko balitz, ingurumen-baimena, gai honetan aplikatzeko den araudiarekin bat eginez egokia dena.

c) Hala beharko balitz, ezarri beharko litzatekeen zortasunaren titulartasuna, direlako hargunearen instalazioendako, edo haietarako beharrezkoak izan litezkeen sareen luzapenendako.

d) Kokaera-planoa.

2. Eskatzaileak ekarritako datuak, higiezinaren ezaugarriak eta banaketa sareen egoera zein den ikusita, IZEAK eskatzaileari agiri gehigarriak aurkeztea eskatu ahal izango dizkio. Era berean, eskatutako hargunea emateko ala ukatzeko erabakia jakinaraziko dio, ukapena denean zergatien berri ere emanez.

3. Eskaria onarturik, IZEAK eskatzaileari delako hargunea zein baldintzari egokitu beharko zaion adieraziko dio, hala nola emate- eta egikaritze-baldintzak ere.

49. artikulua **KONTSERBAZIOA, MANTENTZEA ETA KONPONKETAK**

1. Harguneeen erabilera okerra edo egokia ez den erabilera egin ez dan bitartean, IZEAK bere gain hartuko ditu harguneeen kontserbazio, mantentze eta konponketa lanen gastuak, bide publikoan doazen partean, Mankomunitatearen araubide teknikoari jarraikiz eraiki izan badira, eta dagokion Toki Entitateak urbanizazioaren harrera egin badu. Bide publikoaren eta jabetza partikularren arteko mugatik aitzina, erabiltzaileek izango dute instalazioaren ardura, eta, horien faltan, harguneeak zerbitzu ematen dien finken jabeak edo jabeek izango dute.

2. Mantentze lanetariko bat denez gero, IZEAK hargune zaharra hargune berri batez edo zenbait zahar hargune berri bakar batez ordezkatu ahal izango ditu, hargune zaharren edukiera betiere errespetatuz.

3. Hargune bat beste batez ordezkatzeko arrazioa dagoenaren diametroa eskasa dela izango balitz, kontsumoak handitu direlako, sekzio handiagoa behar duen hargune berria eskatu duenak edo dutenek hartu beharko dute beren kargu.

50. artikulua **HARGUNEAREN BABESA**

1. Erabiltzaileak bere harguneeen funtzionamenduan aurkitzen duen edozein akats edo ur- ihes jakinarazi beharko dio IZEARI. Era berean, beharturik dago bere barneko instalazioan gertatzen den edozein ur-ihes, akats edo intzidentzia ahalik eta lasterrenik konpontzera.

2. Era berean, IZEAK saneamendu instalazioaren parte partikularrean aurkitutako edozein akats edo matxura dela eta, harguneeen funtzionamendu egokia eragotzi dezakeena, erabiltzaileari horren berri emango dio, honek berak eta bere kargu egin beharko baitu behar den konponketa.

51. artikulua

PUTZU SEPTIKOETATIK HELDU DIREN LOHIEN ARAZKETA

1. Putzu septikoetako lohiak edo antzeko instalazioetan sortutakoak, etxeko jatorria besterik ez dutenak, edo etxeko erabiltzaileak direnetan izaera organikoa besterik ez dutenak, hondakin-uren araztegiaren utzi ahal izango dira, haien tratamendurako.
2. Hondakin-uren araztegiaren lohiak uzteko prozedura IZEaren zerbitzu teknikoek ezarritakoari lotuko zaio. Lohiak tratatzeko kostuak abenduaren 29ko Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko 10/1988 Foru Legearen eta haren garapeneko erregelamenduaren arabera arauturik daude.

V. TITULUA. BARNEKO INSTALAZIOAK

52. artikulua ARAUBIDE APLIKAGARRIA

Barneko instalazioak Eraikuntza Kode Teknikoan ezarrita dauden zehaztapenen arabera eraikiak izango dira, hain zuzen ere honako ataletan daudenak, alegia, HS4 (ur-hornidura), SI5 (suteen detekzioa, kontrola eta itzalketa), HE4 (UBS gutxienezko eguzki-ekarpena), HS5 (ur-hustuketa), 1942/1993 E.D. (suteen kontrako babes-instalazioak), 2267/2004 E.D. (suteen aurreko segurtasuna industria establezimenduetan), edota une bakoitzean indarrean dauden arabera.

53. artikulua INSTALAZIOAREN MATERIALAK

Barneko instalazioetan erabiliko den materiala hornidura zein saneamendurako indarrean dauden arauak ezartzen dutenari jarraikiz aukeratua izanen da, egikaritzea baimendu zuen lizentzia eman zeneko unean, alabaina bai ingurumenaren alorrean eta bai giza- kontsumorako ur-hornidura instalazioetako baldintzen inguruan aplikagarri den legeriak ezartzen duenari utzi egin gabe.

54. artikulua BARNEKO INSTALAZIOEN EGIAZTAPENA

1. Sare eta harguneak modu erabilgarrian daudela egiaztatzearen, eraikuntzak sare nagusietan afekziorik eragiten ez duela ziurtatzearen, eta, horrenbestez, hornidura eta saneamendu instalazioa aipatu bi parametroei dagokienez araubidezko baldintza teknikoari egokiturik dagoela jakitearren, Toki Entitateek beren proiektuak IZEari igorri beharko dizkiote, obra baimena eman baino lehenago ere, higiezinaren barneko instalazioari begira aldeko txostena jaso ahal izateko xedeaz. Delako txostena baimena eman baino lehen eskatua izan ez bada, IZEak geroago jaulkiko du, orduan ere berdin adieraziz egin beharreko moldaketak zein diren.
2. Delako txostena arauzkoa da, eta eraikitzailea edo interesduna instalazioan IZEak zehazten dituen moldakuntzak egitera beharturik dago.
3. Nolanahi dela eta kontratazioa egin baino lehenago, IZEak egikaritutako barneko instalazioak ikuskatuko ditu. artikulua honen lehen paragrafoan aipatutako aspektuei dagokienez, instalazioa akastuna dela egiaztatuz, ez zaio hornidura eta saneamendu zerbitzuen kontratazioari ekingo aurkitutako akatsak ongi zuzendurik egon arte.

I. KAPITULUA. UR-HORNIDURAKO BARNEKO INSTALAZIOAK

55. artikulua ZEDARRITZEA

Ordenantza honen ondorioetarako, ur-hornidurako barneko instalaziotzat, eta, honenbestez, erabiltzaileen jabetza partikularrekotzat, bide publikoan kokaturik dagoen hargunetik aitzina dagoena jotzen da, eta haien erantzukizuna izanen dira barneko hornidura instalazioak sor ditzakeen kalte eta galerak.

56. artikulua BARNEKO INSTALAZIOEN EGIKARITZA ETA KONPONKETA

1. Barneko instalazioa, kontagailua jartzearen salbuespenarekin, aplikagarri den araubideari jarraikiz egin beharko da, bereziki begiraturik atzerazeko sistema, eta banaketa sareko gune edo sektore desberdinetan dauden presio aldeak sor ditzaketen gorabeherak ere.

2. Instalazioak eta deribazioak, kontagailu multzoak barne, eraikinaren barnean edo jabetza partikularrean kokaturik daudenak, hornidura jasotzen duen erabiltzailearen kontura edo higiezinaren jabearen kontura konpondua izanen da. Konponketak beti baimendutako teknikari, instalatzaile edo iturginek egin beharko dituzte. Arau honetatik kanpo geratzen da kontagailuaren kontserbazioa eta mantentzea, Ordenantza honen 73. artikuluan ezarritakoaz arautua izanen baita.

57. artikulua

KONTAGAILUEN INSTALAZIO MOTAK

Kontagailuaren instalazioa, kalibreari, luzerari, lotura-sistemari (hariztatua edo bridatua) eta/edo barneko instalazio motari erreparatuta, honako era hauetako batean egin beharko da:

1. Isolatua eta kuxteta homologatuan: Modu hau IZEAK beharrezko jotzen duen kasuetan aplikatuko da.
2. Isolatua eta armairuan: modalitate hau kuxteta homologatuan instalatzearen irtenbidearekin bateragarria da eta lehentasunez aplikatuko da kalibre ertaineko eta handiko (≥ 25 mm) kontagailuak behar dituzten merkataritza-, industria- edo zuzkidura-instalazioetan. Uraren erabilera desberdinengatik egiten diren adarkadurak adina kontagailu hartu ahal izango dituzte (zerbitzuak, ureztatzea, suteak...). Nolanahi dela, kontagailuen erregistroak aurrealdeko armairuetan kokatzeak hargune-giltza bide publikoan (espaloian) jartzea exijitzen du, horniduraren onuradunaren kargu badira ere titulartasun pribatuko elementuetan kokaturik dauden armairu eta instalazioen kontserbazioa eta mantentzea, hala nola aurrealde itxiturak, lurzatiak ixteko hormatxoak, eta abar ...
3. Kontagailu-multzo bereizle moduan: modalitate hau eraiki berriko eraikinetan etxebizitza edo lokal bat baino gehiago dagoenean, derrigorrezkoa delarik neurketa gailu bana instalatzea, eta, beharrezkoa den kasuan, beste bat edo batzu zerbitzu komunetarako. Baldintza berberak aplikatuko dira eraikinaren birgaitzeetan edo ur-hornidurako barneko instalazioen berriztapenetan.

58. artikulua

INSTALAZIO ZIURTAGIRIA

Zerbitzuaren emate efektiboari hasiera emateko, instalazioaren jabeak instalatzaile baimenduk jaulkiriko agiria aurkeztu beharko du, hala erabakitzen den kasuetan, non ziurtatzen den instalazioak aplikagarri den araubideak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela.

59. artikulua

JATORRI DESBERDINETAKO URAK NAHASTEKO DEBEKUA

1. Kontratu bakoitzari dagozkion instalazioak ezin izanen dira bestelako jatorria duen sare edo hodiari lotuak izan. Ezin izanen da, halaber, beste hornidura eta saneamendu kontratu bateko instalaziorik lotu. Edozein modutan, instalazioak sarean atzerako fluxurik ekiditeko arauzko dispositiboak edukiko ditu.
2. Teknikoki justifikaturik dauden kasuetan, industria-instalazioek hornidura propioa behar duten horietan, zerbitzutik datorren urarekin batera erabiltzekoa dena, halako lotura egiteko baimena eman ahal izango da, baldin eta:
 - a) Ura giza kontsumora bideratzen ez bada.
 - b) Neurri tekniko aski hartzen bada, IZEAREN irizpidearen arabera, sare publikorantz ur atzerako fluxurik ekiditearren.
 - c) Giza kontsumoa ez den bestelako erabileratarako (ureztaketa, hozkuntza ...) eskudun osasun-erakundeek baimena ematen badute.

60. artikulua

BARNEKO INSTALAZIOEN EGIKARITZE ERA

1. Arau orokor gisa, barneko instalazio orok ur hotzaren kontabilizatze sistema eduki beharko du, kontsumo unitate bereizgarri bakoitzarentzat. Neurketa sistemak, IZEAK onartutako arrazoi justifikaturik izan ezik, kontagailu motakoak izango dira.
2. Ez da onetsiko hoderik aire zabalean instalatzerik, salbu eta termikoki isolatuak baldin badaude eta IZEAK espresuki baimendurikoak badira.
3. Harguneeen eta elikadura hodien trazadura, ahal bada, zuzena izango da, eta ateratzen diren sare nagusiarekiko elkarzuta.

4. Lurperaturiko hodi guztiak gai herdoilezinez eginak izango dira, eta espresuki debekaturik da burdina galvanizatua erabiltzea.

5. Bide publikoaren eta lurzati partikularren arteko mugatik hara dauden instalazio guztiak, hala nola hoderia, giltzak, kontagailuak, etab. kokaturik daudeneko barruti, kutxeta edo erregistroak, eremu pribatuan kokaturik daudenetan, termikoki isolatuak egon beharko dira, eta erabiltzaileen ardurapean egongo dira, haien kargu hartu beharko baitituzte kontserbazioa eta mantentzea zein hirugarreni eragin liezaiketean kalteak.

6. IZEAK ur-hornidurako barneko instalazioen kalkulua, diseinua eta funtzionamendu egoerari buruzko erantzukizun orori ezetza emanen dio.

61. artikulua

NEURKETA GAILUEN KOKAERA

1. Hargunea edo elikadura hodia eremu publikotik atera bezain azkar, beharrezkoa izanen da pasoko giltza nagusiak instalatzea, toki irisgarri batean, erabiltzaileei hornidura eteteko aukera emanaz, hargune-giltza maneiatu behar izan gabe.

2. Hornidura bat baino gehiago daukan lurzati-unitate orori ematen zaion hornidura, homologaturiko bateriatan kontagailuak behar bezala zentralizaturik bideratu ahal izanen da, non instalatuko diren kontsumoa neurtzen duten guztiak, familia anitzetako etxebizitzak izan, zein ilarako familia bakarrekoak izan, pabilioi atxikiak, merkataritza lokalak, sotoak, eraikinaren erabilera komunak, etab. Komunitatearen ur hotzeko kontsumoak kontrolatzeko kontagailu orokorraz eginiko kontraturik ez da onartuko.

3. Kontagailuak zentralizatzeak eskatzen du haien kokapenerako bakarrik baliatuko den barrutia egotea, eta instalazioak, izan dadin elikadura hodia edo bateria bera, titulartasun pribatukoak izanen direnak, nahiz eta bai titulartasun hori eta bai haien kontserbazio eta mantentzerako beharrezko lanak jabe eta/edo erabiltzaile talde osoak beretzat hartu behar baititu. Era berean, kontagailuen zentralizazio-gunea eta kontsumo unitate desberdinak (etxebizitzak, lokalak, etab.) lotzen dituzten banakako deribazioen kontserbazioa eta mantentzea, jabetza pribatuan zehar joateagatik beragatik (horman sartu zein aireko instalazioen patio-zuloak) erabiltzaileen kargu egonen dira.

4. Bateriak homologatuak eta altzairu galvanizatuz, A 316 altzairu herdoilezinaz, polietileno edo polipropileno eginak izanen dira, eta beren balbulak normalizatuak, bateria-balbulei buruzko UNE 19804 araua betez.

Bateria balbulak DN-20 diametrokoak izango dira ibilbide osoan eta bolazko obturadorea edukiko dute. Irteerako balbulak atzera ezinako sistema edukiko du, egiaztatze hargunea barne duela, aginduzkoak diren eranskinetan dagoen fitxa teknikoaren arabera.

5. Bateria armairu batean edo erabilera komuneko lokal sartzen erraza den batean, beheko solairuan, bide publikotik edo ataritik sarbide zuzena eta independentea duena. Aurrikusten diren hornidurak bezainbeste irteera izanen ditu. Barrutiaren neurriei edo atari barneko kokaerari dagiokionez, armairua den kasuan, kontagailuen instalaziotik eta aurkako paretaraino gutxienez metro lineal bateko tarte hutsa egon beharko da, mantentze lanak edo irakurketa egin ahal izateko. Barrutian SCPSAk homologatutako sarraila, argiztapen elektrikoa eta ur-hustubidea egongo dira, eta telekomunikazio barruti edo beheko armairuarekin konektaturik egongo da, 50 mm-ko sekzioa duen tutu batez, kable pasatzeko gidaz hornitua. Kontagailu-gelaren alternatiba moduan, zuzenean ataritik edo bide publikotik bertatik iristeko armairuetan bateriak jartzea onartzen da, baldin eta itxitura erabilgarria bada, bere aurrealde osoa libre uzten badu eta kanpoko gune seguru bat badago, gutxienez, metro lineal bateko hondoa duena, oztoporik gabea, non mantentze-lanak egin ahal izango diren.

6. Kontagailuen armairura edo barrutira bide publikotik zuzenean sar daitekeen kasuetan, itxiturari zein zurelementuei isolamendu termikoa eta estankotasun aski eman behar zaizkie, negu aroan instalazioaren izozteagatik hornidura eteteko arriskua ekiditeko. Arrazoi honengatik beragatik, barruti horien kokapena eta orientazioa kontuan hartuak izango dira, hotzaren aurka ahalik eta mesedegarrienak izan daitezten.

7. Higiezin baten beheko solairuan etxebizitzak daudenean, arreta berezia emango zaio neurketa ekipok kokaturik dauden barruti edo armairuen isolamendu akustikoari.

8. Higiezin birgaitze obretan eta kontagailuen multzoan jartzea beheko solairuan ezinezkoa dela frogatzen den kasuetan, eta IZEAREN baimena tarteko, onartuko da kontagailuak solairu bakoitzean multzoka jartzea, eta bertako eskailburuan jarriko dira. Kasu honetan, solairu bakoitzean tokia egokitu beharko da, kontagailuen instalazioa osatzen duten elementu guztietara erraz iristeko behar den espazioa emanaz. Elementu guztien mantentze lana eta ordezkapen eragiketarako egiteko modua izan beharko da, eta hortaz, armairuen kasuan atetxoak instalazioa betetzen duen altxaera osoa estali beharko du, eta kasu guztietan

SCPSAK homologatutako sarraila, argiztapen nahikoa, korrante-hargunea, ur-hustubidea eta higiezinako kontagailu multzokatze guztien eta telekomunikazio barruti edo beheko armairuaren arteko konexioa egongo da, 50 mm-ko sekzioa duen tutu batez, kable pasatzeko gidaz hornitua.

9. Edozein kasutan, multzo edo bateriak IZEAk homologatuak beharko dute, eta haietako bakoitzak pasoko giltza eta atzeraezeko balbula izango ditu.

10. Baterien barnean, kontagailuen kokaera honela egingo da: gorengo posizioan dagoena ez da 1,45 m-ko baino altuera handiagoan egongo, eta sabaia eta haren arteko tartea gutxienez 40 cm izango da.

11. Neurketa ekipoak ostatatzen dituzten armairuetako eta barrutietako ateendako sarraila mota Mankomunitateak homologaturikoa izanen da.

12. Etxebizitzetako higiezinetan, ur beroa zentralizaturik dagoen kasuetan, neurketa ekipo orokorra ur hotzaren kontagailuak kokatzeko asmatu den multzoetako batean instalatuko da.

13. Erabiltzaile bakarra dagoen finketan kontagailuen kokatzea ordenantza honen 57. artikuluan xedatutakoari jarraikiz egingo da. Edozein kasutan, kontagailua kokaturik dagoen barrutia, armairua, erregistro edo kuxteta bide publikotik erraz iristeko modukoa izan beharko da.

62. artikulua

ZAHARKITUTAKO INSTALAZIOEN BERRIZTATZEA

1. Kontagailu bakarra duen higiezin bateko erabiltzaileek edo jabeen komunitateak, instalazioak zaharkiturik eduki, eta beren kontratuak eta kontsumoak banakako bihurtu nahi dituztela-eta, beren instalazioak zaharberritu beharko dituzte, Ordenantza honi egokituaz, kontagailu guztiak homologaturiko bateriatan egon daitezzen.

2. Aurrean adierazitakoa hala delarik, eta beti ere ahal denean, onartuko da kontratu orokorretik zati edo partaideren baten bereizkuntza, komunitateak alde aurretik onespren erabakia harturik duela, eta baldin eta kontagailu guztiak errezeptakulu berean, eraikineko erabilera komuneko toki irisgarri batean, sarreratik ahalik eta gertuena kokatuan, egon daitezzen beharrezko moldakuntza guztiak egiten badira.

3. Merkataritza-lokaletako instalazio zaharren berriztatzeetan, kontagailuak bateriatan instalaturik ez daudenetan, kontagailuak bide publikotik edo eraikineko gune irisgarri eta erabilera komunetik erraz iristeko moduko tokitan kokatuko dira.

4. Eraikinen barneko instalazio orokorrak eraikuntza berriko obrak arautzen dituen eta indarrean dagoen araubideari egokitzea derrigorrezkoa izanen da, eta, bereziki, kontagailuen zentralizazioari eta kokaerari buruzkoan, birgaitze obrak ondorengo baldintzetariko bat betetzen duenean:

a) Haren aurrekontuak higiezinaren balioaren % 70 gainditzen du, bizitegi-eraikuntza denean obra egiten ari den gunearentzat indarrean dagoen modularen balioa aplikatuko baitzaio.

b) Birgaitzeak ataria, eskailera, fatxada... bezalako elementu komunen berriztatzea izatera iristen da, instalazio orokor berriak ezartzen dira, edo haietakoren bat obrak ukitua suertatzen da, eta, gainera, eraikinean dauden etxebizitza edo lokaletan jarduketa zehatzak egikaritzen dira.

Instalazio tekniko zaharrak Eraikingintzaren Kode Teknikoak ezarritakora egokitu behar dira, 2. artikuluan zehaztutako haren aplikazio-eremuaren arabera eta DB H S4 y DB H S5 dokumentuen arabera, non aplikagarritasunari buruzko irizpideak ere ezartzen diren dauden instalazioetarako (1.1 atala, aplikazio-eremuari dagokionean).

63. artikulua

PRESIOA GAINGORATZEKO SISTEMAK

1. Sare orokorrean puntako aldiari baliagarri den presio dinamikoak aski ez denean, higiezinaren tokiren batean hornidura zerbitzuaren funtzionamendu egokia mantentzeko, erabiltzaileak presioaren gaingoratzeko sistema instalatu beharko du. Halakoetan, elikadura hodiaren desdoblamentua onartu ahal izanen da, hornidura multzo bereziak ezartzearen, eta presio gaingoratzeko sistema zerbitzu egokia emateko saretik iristen den presio zuzena aski ez den haietaz erabiliko da.

2. Presiorako sistema ondoko bi mota hauetako batekoa izanen da:

a) Arrunta, honakoak izanen dituena:

I.-Elikadura depositu laguntzailea, ponpaketa ekipoak ura zuzenean hartzea ekidingo duena, presio

haustura honela saihestuz.

II.-Ponpaketa ekipoa, gutxienez bi ponpagailuz osatua, prestazio berekoak eta txandaka funtzionatzekoak, paraleloan ezarririk.

III.-Mintzadun presio-deposituak, instalazioaren presio parametroak balioesteko gai diren gailuei konektatuak, martxan jartze eta gelditze automatikoak egin ditzaten.

b) Eragintza erregulagarrikoa, emari aldakorreko ere deitua; elikadura depositu laguntzailerik gabe ere egon daiteke, eta ponpagailuak izekiko dituen frekuentzia aldagailua edukiko du, irteerako presioa iraunkor mantenduz, zeinahi dela eskaturiko emaria edo eskuragarri dagoena. Ponpagailuetako batek presio egokiari eusteko beharrezkoa den ur-emariaren parte mantenduko du.

3. Presio multzoa erabilera bakar horretarako barruti batean kokatua egongo da.

4. Eragintza erregulagarriko presio-multzoa instalatuz gero, IZEAREN baimen emate espresa beharrezkoa izango da.

5. Presio-multzo arrunten kasuan, IZEAK kontagailu orokor bat ezartzea exijitu ahal izango du, deposituaren aurrean, honen betetzea kontrolatzeko. Hornidura bakarra delako banakako kontagailua dagoen kasuan, hau ere deposituaren aurrean instalatuko da. Kontrolerako kontagailu orokorra edo kontagailu kentzailea jabeen komunitatearen kontura instalatua beharko du, eta komunitateak berak ordaindu beharko du barneko instalazioan gerta litekeen kontsumo diferentzia.

6. Presio-multzoak higiezinako barneko instalazioaren partetzat hartuak izango dira eta barruti iristerrazean kokatuko dira, seinaleztatua eta isolamendu akustikoa duena, jabetza partikularraren barnean erabilera eskusibokoa. Kontserbazioa eta mantentzea jabeei edo haien erabiltzaileei egokituko zaie.

64. artikulua SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOAK

1. Suteei buruzko araubide espezifikokoak sare nagusian dagoen presio estatikoa baino handiagoa eskatzen duenean, erabiltzaileak izango du ardura presio gaingoratzeko gailuak ezarri eta kontserbatzeko, goian aipatutako araubide espezifikoa beteko baitu horien bitartez.

2. Su-itzalketako sistema desberdinen hornidurarako herritar partikularri ur-hornidura ematea kontrol kontagailurekin edo hura gabe egin ahal izango da. Instalazioak erreserba depositua eta presio gaingoragailua dauzkan kasuetan, edota instalazioaren parte handia lurpean, horman sartua edo ezkutua dagoen kasuetan, edota aldiro-aldiro erabili beharreko proba- protokoloa dagoen beste haietan, derrigorrezkoa izango da deposituaren betetzea, balizko ur-ihesak edota probek eragindako kontsumoak kontrolatzeko kontagailua ezartzea. Kontagailurik jartzerik eskatzen ez duten beste instalazioetan, eta oro har kontagailu aurrean dauden lurpeko hoderia zati guztietan, nodulu-burdinurtua erabiliko da.

3. Sare nagusitik zuzenean hornitzen diren beste instalazio guztiak edota, erreserba depositu baten bitartez erregulari hornitzen badira ere, by-pass baten bidez sarearekin lotura zuzena dutenak, altzairu galvanizatuzkoak izango dira, 2440 DIN ARAUAREN arabera fabrikaturikoa. Barneko instalazioak bere ageriko ibiltarte guztietan lotura hariztatuak izango ditu. Halaber, barneko instalazioak UNE 23500 arauan mota honetako instalazioentzat ezarritako balbulak eta pieza-multzoak izango ditu, eta haien artean eten-giltza eta atzeraezko balbula, zein eraikineko toki iristerrazean eta hargunea eraikiinean sartzan den gunetik ahalik eta hurbilen kokatuko baitira.

64. bis artikulua. GAI FITOSANITARIOAK ERABILTZEAREN EDATEKO URAREKIN

1. Hornidurarako sare publikotik datorren ura kontsumitzen duten instalazioek –beren lanak egiteko gai toxikoak (herbizidak, ongarriak, intsektizidak, fungizidak...) erabiltzen dituzten instalazioak– ondoko neurri hauek hartu beharko dituzte, edateko urak atzera eginda, kutsatzea saihesteko (UNE-EN 1717:2001 Protección contra la contaminación del agua potable en las instalaciones de aguas y requisitos generales de los dispositivos para evitar la contaminación por refluo. Protection against pollution of potable water in water installations and general requirements of devices to prevent pollution by backflow; UNE-EN 13076:2003 Dispositivos para prevenir la contaminación del agua potable por refluo. Intervalo de aire sin obstáculos. Familia A. Tipo A. Devices to prevent pollution by backflow of potable water - Unrestricted air gap-Family A - Type A):

Ura sartzeko zuloaren eta ura hartzeko ontziaren goiko aldearen artean aire ganbera bat egongo da, inolako trabarik gabea, 10 cm baino handiagoa eta 2D_i baino txikiagoa. Hain zuzen, D_i izango da elikatze hodiaren barneko diametroa, cm-tan, aginduzkoak diren eranskinetan dauden dokumentu grafikoetan adierazitakoaren arabera.

2. Espresuki debekatuta dago ura hartzea edo kargatzea, erabilera honetarako, SCPSAren eskumen den hornidura sarean instalatuta dauden erabilera publikoko ur hargune eta sute-ahoetatik.

II. KAPITULUA. SANEAMENDURAKO BARNEKO INSTALAZIOAK

65. artikulua ZEDARRITZEA

Ordenantza honen ondorioetarako, saneamendurako barneko instalaziotzat, eta, honenbestez, erabiltzaileen jabetza partikularrekotzat, hargunetik aitzina dagoena jotzen da, eta haien erantzukizuna izanen dira barneko saneamendu instalazioak sor ditzakeen kalte eta galerak.

66. artikulua UR-HUSTUKETAKO BARNEKO INSTALAZIOEN EGIKARITZA ETA KONPONKETA

1. Barneko instalazioa egin beharko da instalazio partikularren eta sare nagusiaren artean egon daitekeen kota-diferentziek sor ditzaketen gorabeherak bereziki begiraturik.

2. Ur-hustuketako barneko instalazioak, jabetza partikularrean kokaturik daudenak, zerbitzuaren onuradunak konpondu beharko ditu. Arau honetatik kanpo geratzen da neurketa gailuen kontserbazioa eta mantentzea, halakoak ezartzea beharko litzatekeen aparteko kasuetan, hori Ordenantza honen 73. artikuluan ezarritakoaz arautua izanen baita.

67. artikulua SANEAMENDU ZIURTAGIRIA

Zerbitzua ematen hasi baino lehen, instalazioen jabeak agiri normalizatuan teknikari adituak izenpeturiko ziurtagiria aurkeztu beharko du, non baieztatzen den saneamendu eta euri-uren barneko instalazioak egikaritu izan direla IZEAk ezarritako irizpidean arabera, Ordenantza honi eta aplikagarri den beste legeriari jarraikiz, eta bereziki aipatuz isurgune bakoitza dagokion kolektorearekin loturik dagoela eta, halakorik behar denetan, kota diferentzia gainditzeko hartutako irtenbidea azalduz.

68. artikulua BARNEKO INSTALAZIOEN EGIKARITZE ERA

1. Hargunearekin lotu baino lehen, barneko instalazioak hasierako kutxeta edo barneko erregistroa eduki beharko du, eraikineko toki sartzen errazean.

2. Ur beltzen eta euri-uren kolektoreekiko harguneak Mankomunitateak mota honetako instalazioentzat duen araubide teknikoak ezarritako irizpideen arabera egikarituko dira. Erregistroarekiko edo kolektore nagusiarekiko lotura haren zulaketaz egingo da, eta ez hausturaz, eta gomazko juntura estankoa jarriko da.

3. Ponpaketa multzo guztiak edo sare nagusienak direnak ez beste elementu guztiak barneko instalazioak jarriak izan beharko dira.

4. Lurraren sestra azpiko solairuak dituzten eraikinetako saneamendu edota euri-uretako instalazio komunitarioa, betiere honela egiten ahal delarik, bide publikoaren sestratik hurbilen dagoen sotoko sabaiaren altueran bildu eta eramanez da, karrikan kokaturik dagoen kutxeta bateraino, edo, horren faltan, eraikinaren toki irisgarri batean dagoen kutxetaraino, eta hemendik hargunearekin lotuko da. Sotoko beste saolairuetarako, hondakin-urak bildu eta kutxeta bateraino eramanez izanen dira, eta gero ponpaketa bidez gorago aipatutako kutxetekin konektatuko da. Era berean, teilatuetatik, terraza, barneko etxarte, garajeetara sartzeko kanpoko malda, iragazi freatikotatik edota drenajeetatik etorritako euri-urak barneko kutxetara bideratuko dira, eta hortik euri-uren saneamendu sare publikora joateko, edo banakakora, saneamendu sare bereizlerik ez dagoen kasuan.

5. Eremu pribatuan zehar doazen bil-hodiak (sotoak, aparkaleku pribatuak, lorategiak, etab.) eraikinaren edo higiezinaren sare partikularizat hartuko dira, eta haien mantentzea edo kontserbazioa ez da IZEAren arduratarik izango. Zatiketa horizontalari buruzko eskrituretan elementu komun horiek badirela agertarzi behar da, haien titulartasuna egiaztatuz eta kontserbazio eta mantentzeari buruzko baldintzak ezarriz, inolaz ere IZEAren gain utziko ez direlarik.

6. Familiabakarreko etxebizitzak edo industria eraikuntza egiten den kasuan, lurrazalaren gainean, elementu komunik dagoenetz argi ikusten ez denean, etxebizitza, nabe edo lokal bakoitzaren saneamenduko isurpenak zein bere aldetik sartuko dira dagokien sare nagusira, ur beltzena edo euri-urarena. Horrela, etxebizitza, nabe edo lokal bakoitzaren hargunea zerbitzua ematen dioneko lurzatiari paralelo joango da, eta ez da baimenduko harguneraren trazadurarik edo kutxeta konpartituen eraikuntzarik zerbitzatzen duten

higiezina kokatzen denean ez baizik eta baina beste eremu pribatu batean.

7. IZEAK saneamenduko barneko instalazioen kalkulua, diseinua eta funtzionamendu egoerari buruzko erantzukizun orori ezetza emanen dio.

69. artikulua

HONDAKIN-UREN PONPAKETA SISTEMAK

1. Saneamendu harguneak sare nagusiari gehituko bazaizkio, kanpoko hasierako kutxetaren oinarriaren, edo, halakorik ez badago, eraikineko isurpenak ateratzen diren hodiaren irteeraren, eta saneamendu kolektoreko gakoaren artean, lotura gunean, 50 cm-ko kota diferentzia egon behar da. Kota diferentzia hori ez badago, ur beltzak eta euri-urak jasoko dira eta toki batean bilduko, eta bertatik ponpatuak izanen dira dagokion barneko kutxetara, euri-urarendakoa izan zein ur beltzarendakoa izan, higiezinaren irteeran bete behar baita gorago eta kolektorearekiko aipaturiko kota diferentzia hura egotea.

2. Ur beltzak edo euri-urak goratzeko sistema horiek eraikinaren barneko instalazioaren partetzat hartuak izanen dira, eta jabetza partikularraren barnean kokaturik egongo dira eta barruti iristerrazean kokatuko dira, seinaleztatua eta isolamendu akustikoa duena, jabetza partikularraren barnean erabilerara eskusibokoa. Kontserbazioa eta mantentzea jabeei edo haien erabiltzaileei egokituko zaie.

3. Salbuespen gisa, IZEAK espresuki baimendu ahal izango ditu saneamendu harguneak egitea kota arteko diferentzia 50 cm baino gutxiagokoa dela, kanpoko hasierako kutxetaren oinarriaren, edo, halakorik ez badago, eraikineko isurpenak ateratzen diren hodiaren irteeraren, eta saneamendu kolektoreko gakoaren artean, lotura gunean, betiere baldin eta hartutako irtenbidea justifikatzen duen txosten teknikoa badago, IZEAK jaulkitakoa.

70. artikulua

NEURKETA EKIPOAK

1. Abenduaren 29ko 10/1988 Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legearen eta haren garapen erregelamenduari arabera, isurpenen edo barneko instalazioaren ezaugarriengatik, hondakin-uren kontabilizatzeko sistema ezarri beharko den kasuetan, toki iristerrazean eta IZEaren teknikarien oharpenei kasu eginez aukeratuko da haien kokaera.

2. Isurpen kontagailuen kontserbazio eta mantentze erregimena kasu zehatz bakoitzean ezarriko da, instalaziobakoitzaren ezaugarri tekniko bereziek eskatzen duten eran.

VI. TITULUA. NEURKETA SISTEMAK

71. artikulua

KONTAGAILU MOTA

1. Kontsumoen kontabilizatzeko sistema oro har kontagailu motakoa izango da.

2. Kontagailuak beti ofizialki homologatutako eta behar bezala egiaztatutako ereduak izango dira eta IZEAK zigilatuko ditu.

3. Neurketa ekipoen dimentsioa zehaztea Eraikuntza Kode Teknikoan eta aplikagarri den beste araubidean ezarritako irizpideei jarraikirik egingo da, edo kontratazioa egiten den unean indarrean dagoen legeriari jarraikirik, kontuan hartuz emari nominaleko erregimenean daukaten edukiera, eta instalazioari erabileraren kariaz eta erabiltzaileak aitorturiko funtzionamendu erregimenaren zioz dagozkion bateratasun koefizienteak aplikatuak izan direlarik.

4. Edonola ere, gutxienik honako emari iraunkor hauek instalatu beharko dira:

a) 4 m³/ordu-ko emari iraunkorra (20 mm-ko kalibrea), eraikuntza obren hornidurarako.

b) Bizitegi eraikuntzak direnean, 1,6 eta 2,5 m³/ordu arteko emari iraunkorra (13 mm-ko kalibrea), bloke erako etxebizitzetako (pisuak) kontsumoen kontrolerako, non kontsumoa osasun zerbitzuak eta etxeo tresnak erabiltzeaz etortzen den; familiabakarreko etxebizitza isolatu edo ilarakoetan, ordea, goian aipatutako erabilerak ez diren beste batzutarako ur-kontsumoa egin daitekeenez, hala nola berdeguneen urreztapena, teknikoki egokiago jotzen da 4 m³/ordu-ko emari iraunkorra (20 mm-ko kalibrea).

c) Gainerako erabileretarako, kontagailuaren dimentsio-zehaztapena kasu bakoitzean justifikatuko da, aurreko paragrafoan ezarritako irizpideak begiratu.

5. Erabilera eta funtzionamendu erregimen errealak erabiltzaileak kontratazioa egiteko unean aitortutakoekin bat ez datozen kasuan, edo kontagailuaren errendimendu normalari eta/edo kontratatutako emariari dagokion erlazioa erdiesten ez badute, instalazioak eskaturiko emarirako egoki den beste batez ordezkatu beharko da, horretaz sortutako gastuak erabiltzaileak ordaindu beharko baititu eta, egokia bada, dagozkion kontratu-aldaketak onartu beharko baititu.

72. artikulua

NEURKETA EKIPOAREN JABETZA ETA INSTALAZIOA

1. Ordenantza hau indarrean jartzen den momentutik, erabiltzaile bakoitzaren ur-kontsumoak neurtzeko instalatuko diren neurketa ekipo guztiak, bai kontagailu parkearen berriztapenagatik, bai instalazio berria denagatik, IZEAREN jabetzakoak izango dira.

2. Instalatutako kontagailua soilik IZEAK maneiatu ahal izango du, edo hark baimendutako langileek, behar bezala kreditaturik. Proiektu berriren sustatzaileen kontura egongo da neurketa sistemak instalatzea, IZEAREN zehaztapen teknikoak betez. Era berean, eraikin berrietan kontagailuen urrutiko irakurketa sistema ezartzea sustatzaileen kargu egongo da, eta IZEAK kasu bakoitzerako seinalatuko dituen zehaztapen teknikoen arabera burutu beharko da.

3. Kontratazioa egiten den momentuak kontagailua instalatu gabe baldin badago, IZEAK instalatuko du, edo hark baimendutako langileek, behar bezala kreditaturik, eta instalazioaren gastuak erabiltzaileari jasanaraziko zaizkio, IZEAK ezarritako prezioen arabera. Era guztietara, kontagailuak kokatuko direneko erregistro edo barrutietan kontagailuaren urrutiko irakurketa egiteko seinale-igorpen konexiorako aurreinstalazio egokia egon beharko da.

4. Jabetza pribatua (bateriak, armairuak, etxe barruak, nabe edo lokalak, etc ...) kokaturiko kontagailuen bi alboetan giltza bana ezarriko da, bata haren aurretik eta bestea atzetik. Kontserbazio eta mantentze lanak, hala nola IZEAK funtzionamendu txarragatik edo giltza horien erabilera okerragatik egin beharko dituen jarduketak, erabiltzailearen kontura izango dira.

5. Barneko instalazioa eta hartan kokaturiko kontagailua beti erabiltzailearen zaintza arretatsu eta ardurapean geratzen dira, bere burua behartuko baitu IZEAREN enplegatuei edo hark baimenduriko langile behar bezala kreditatuei kontagailura eta barneko instalaziora iristen laguntzera.

73. artikulua

KONTAGAILUEN EGIAZTAPENA, KONTSERBAZIOA ETA ORDEZKAKETA

1. Erabiltzaileari dagokio kontagailuaren erabilgarritasuna eta isolamendu termikoa ongi mantentzea, bai eta kokaturik dagoen armairu edo barrutiarena ere, neurketa ekipoak barneko instalazioetan edo kontagailu multzoetan kokaturik daudenean, haiek ongi funtzionatzea bermatzeko. SCPSAK eskumena izango du bidezko jotzen dituen ikuskatzeak, egiaztatzeak eta ordezkatzeko egiteko.

2. Kontagailuen balio bizitzaren epea 12 urtekoa izango da, instalatu direnean hasita. Epe hori igarota, SCPSAK edo hark baimenduriko langileek ordezkatu egingo dituzte, behar bezala kreditaturik. Lehenago adierazi den epea luzatu ahal izango da, salbuespen moduan, Estatuko kontrol metrologikoa arautzen duen ICT/155/2020 Aginduak ezarritako baldintzen arabera.

3. Kontagailuen kontserbazio, mantentze eta ordezkatzeko lanak SCPSAK edo hark baimenduriko langileek egingo dituzte, behar bezala kreditaturik, eta haren kargu izango dira. Eginbehar honetatik kanpo geratzen dira maneiatze ezbidezkoa, gehiegizko erabilpena, hondamendi eta izozteagatik suerta litezkeen matxurak, azken kasu honetan kontagailuak higiezinaren barnean kokaturik daudenean, kasu horietan kontagailuaren mantentze eta ordezkatzeko lanak SCPSAK egingo baititu, erabiltzailearen kargu.

4. Kontagailua instalatzean SCPSAK ezarritako ziguilak eraldatzea debeku da. Haietakoren bat hautsi egiten bada, 24 orduko epean SCPSARI abisua eman beharko zaio hura berriro zigilatu dezan.

VII. TITULUA. UR-HORNIDURA ETA SANEAMENDU ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

74. artikulua

ZERBITZUEN OSAGARRITASUNA

1. Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuen osagarritasunagatik eta elkarrekiko duten loturagatik, IZEAK ez ditu emango bakarka edo modu independente batean.

2. Salbuespen gisa, IZEAK zerbitzuetako bat eman ahal izango du bakarka, bere aburuz, eskatzaileak aski

justifikatu duenean beste zerbitzuari irtenbide autonomoa bilatu diola, edo ur-hornidura zerbitzua baliatuko deneko jarduketako erabilera saneamendu zerbitzurik egotea eskatzen ez duenean.

75. artikulua **HORNIDURA ETA SANEAMENDU KONTRATUAK**

1. Bai hornidura zerbitzua eta bai saneamendu zerbitzua, edozein klasetakoa delarik ere, biak ere interesdunaren eskabidez emanen dira. Zerbitzu emate hori bidezko kontratuaren bitartez formalizatuko da, eta hori izenpetuko dute, alde batetik, IZEAK izendatuko duen pertsonak, eta beste aldetik, zerbitzuak hartuko dituen higiezina okupatzeko titulartasun nahikoa duenak, biek ere zuzenean jardun ahal izango dutelarik, edo ahalorde askietsia daukatenean beren ordean.

2. Aurreko atalean xedaturikoari ezer eragin gabe, zerbitzuen kontratazioarekin erlazionaturiko izapideak telefonoaren bitartez edo IZEAK erabilgai duen beste edozein bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoren bidez.

3. Hornidura eta saneamendu zerbitzuak izateko interesa dutenek IZEARI eskatuko diote, kasuaren arabera, ur-emariak erabiliko diren jarduketa mota adieraziz, bai eta zer kopurutan behar duen, instalaturik edo proiektaturik daukan hondakin-urak husteko sistema eta isurpenen ezaugarriak ere.

76. artikulua **KONTRATUEN FORMALIZAZIOA**

1. Hornidura eta saneamendu zerbitzuetarako, lurzati, etxebizitza edo lokal independente bakoitzeko kontratu bat eratuko da, jabe edo errentari berarekin badira ere, eta elkarren ondoan badaude ere. Jabearen izenean kontratu bakarra egin ahal izango da, edo errentariaren izenean, halako kasua bada, kontagailu orokor bidezko hornidura denean, tarifa berezitua behar den kasuetan izan ezik, horrelakoetan erabiltzaile bakoitzak hornidura independentea izan beharko baitu.

2. Salbuespen gisa, IZEAK baimendu lezake hainbat hornidura kontagailu orokor bidez kontratatzea honako baldintzak betetzen direnean:

a) Hornidura izango duen higiezina merkataritza-gune edo bulego eraikina izatea, lokal aunitz ostatatzen dituenak.

b) Aipatu merkataritza-guneak edo bulego-eraikinak jarduketa bakarrekoak izan daitezela, eta kudeaketa eta administrazio komun eta legalki eratuak eduki dezatela.

c) Kontagailu bereizleak instalatzeko zailtasun teknikoak egotea. d) Etxeko kontsumoak ez direnak izatea.

e) Hornidura eta saneamendu erabilerekin tarifa edo baldintzaren desberdinak ez inplikatzeko.

3. Era berean, eta aldeaz aurretik IZEAK ezarritako irizpide teknikoak jarraiturik, kontagailu orokor bidezko kontratazioa baimenduko da aisia-baratzeko erabilerrako.

I. KAPITULUA **UR-HORNIDURA ZERBITZUA**

77. artikulua **KONTRATAZIOA**

1. Zerbitzua higiezin zehatz eta espezifiko bati ur emateko eskatu beharko da, eta erabilera zein izango den, hornidura eman ahal izango zaio, kapitulu honetan eta erabilera horietako bakoitzarentzat, biltzen diren betebeharrekin bat etorriz. Ez da gauzatuko inongo hornidurarik, erabiltzaileak IZEAREKIN dagokion kontratua izenpetu ez bada, zein Ordenantza honetan eta aplikagarri daitezkeen beste lege-xedapenetan ezarritako eran eta baldintzetan formalizatuko den.

2. IZEAK kontratua izenpetzeari honelako kasuetan uko egin ahal izango dio:

a) Hornidura eskatzen duen pertsonak edo entitateak Ordenantza honetako determinazioen arabera eraturiko kontratuaren klausulak oso-osorik onartzen ez dituenen.

b) Eskatzailearen instalazioak edo/eta isurpenen ezaugarriek indarreko legezko araubideak eta arau teknikoak betetzen ez dituztenean, eskaera egiten den unean. Kasu honetan, IZEAK interesdunari aurkitutako akatsen berri emango dio, zuzendu ditzan.

c) Eskatzaileak, hornidura eta saneamendu zerbitzuak hartzeko eskubidea baliatzeko baldintza guztiak

betetzen dituelarik ere, Mankomunitateari edo IZEari ordaindu gabeko kopururen bat zor diola egiaztatzen bada, egokitu lekizkiokoen gastuak eta gainordainak gehiturik bere zorra kitatzen ez duen bitartean.

d) Eskatzaileak dokumentazioa aurkezten ez duenean edo aplikagarri diren lege araubideek zehazten dituzten eskubide ekonomikoak ordaintzen ez dituen bitartean.

e) Hornidura eskatzen duen pertsona edo entitateak lege-iruzurrean eskatzen duenean.

78. artikulua **ERABILERA**

Ondoren zerrendatzen diren erabilera edo xedeetan erabiltzen diren higiezinatarako hornidura kontratatu ahal izango da:

1. ETXEKO ERABILERA.

Kategoria honetan etxebizitzatarako diren higiezinatarako hornidurak sartzen dira, halako izaki, bizigarritasun- zedula edo haren baliokidea daukatenak.

Era berean, ura etxeko erabilerarako dela kontsideratzen da ondoko hauek hornitzen direnean:

- Etxebizitzetako berogailu instalazioak eta ur beroa
- Etxebizitzetako eremu komunak eta zerbitzuak.

2. INDUSTRIA ERABILERA.

Kategoria honetan lehengaiak eraldatzen edo manufaktura-produktuen ekoizpenean erabiltzen diren higiezinatarako hornidurak sartzen dira.

Era berean, aurreko paragrafoan sartzen ez direnak, baina, beren jardueratik isurpenen kontrola egitea egin behar zaien higiezinatarako hornidurak ere kategoria honetan sartzen dira.

3. MERKATARITZAKO ERABILERA

Kategoria honetan ondasun banakuntzako edo zerbitzu emateko merkataritza jarduerak egiten diren higiezinatarako hornidurak sartzen dira.

Zehazki, atal honetan honelako ur-hornidurak sartzen dira:

- Ikaskuntza-akademiak.
- Zerbitzuak emateko jarduerak garatzen diren higiezinak, hala nola:
 - Estadioen kudeaketa eta beste kirol-instalazio pribatuak.
 - Klubak eta kirol-eskola pribatuak.
 - Ausazko jolas eta beste apostu motekin erlaziozatuak.
 - Beste jolas jarduerak.
- Ostatudun ospitale-jarduerak egiten diren higiezinak, haien titulartasuna pribatua denean.
- Klinika, kontsultategi eta osasun- edo albaitaritza-zentroak oro har, haien titulartasuna pribatua denean.
- Biltegiak.
- Ostalaritza eta gisako jardueretan erabiltzen diren higiezinak.
- Profesionalen bulegoak.
- Erabilera pertsonalerako higiezinak: hirigunearen barnean daudenak, erabilera zehaztugabeak.
- Izaera sozialeko jardueretan erabiltzen diren higiezinak, enpresari, profesional, sindikatu, politika, eliza elkarteek, edo xede analogoak dituztenek egindakoak.

4. ZERBITZU PUBLIKOKO ERABILERA.

Kategoria honetan titulartasuna Administrazio Publikoari edo Erakunde Autonomoei dagokienerako higiezinatarako hornidurak. Zehazki, atal honetan honelako hornidurak sartzen dira:

- Elkarte Publikoen higiezinak, beren jardueran interes publikoko xedeak erdietsi baina industria edo merkataritza izaera izan ez, eta Administrazio Publikoek beren jardueraren erdia baino gehiago finantzatzen dietenak.
- Oro har jendearentzako iturri publikoak.
- Saneamendu publikoko jarduerak.
- Titulartasun publikoko Igerilekuak eta beste kirol-instalazioak edo instalazio kulturalak.

5. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ERABILERA.

Kategoria hauetan nekazaritza eta abeltzaintza ustiakuntzetarako hornidurak sartzen dira, lorezaintza barne, haien ekoizpenak merkaturatzeko asmoz egiten badira. Zerbitzuak ematea aukerabidezkoa da, eta hornidura eskatzen den guneko instalazioen ahalbideen mende dago, bai eta hornitu behar den azalera zenbat den eta populazioaren behar orokorrak zertan diren ere.

Era berean, kategoria honetan sartu behar dira ura soil-soilik herbizidak eta produktu fitosanitarioak prestatzeko erabiliko duten hornidurak.

6. GIZARTE-INTERESEKO ERABILERA.

Kategoria honetan honelako hornidurak sartzen dira:

-Instituzioen, erakundeen edo elkarteen higiezinak, estatuetako helburuetan interes orokorra sustatzea dutenak eta hezigarriak direnak, gizarte-laguntzakoak edo pertsona ahulei arreta eman eta haiek sustatzekoak, non delako izendapena egiteko arrazoia diren xedeak gauzatzen diren.

-Ikastetxetarako hornidurak, titulartasuna pribatua zein publikoa izan, hezkuntza-zikloan parte hartzen dutenak.

-Zehazki, Ikasle-egoitza Nagusiak, Ikasle-egoitzak eta haur-eskolak sartzen dira, halako izaera aitortua dutenak.

7. SUTEEI AURRE EGITEKO ERABILERA.

Kategoria honetan, zeinahi dela haietan egiten den erabilera, eraikin, lokal edo barrutiren batean suerta litezkeen suteak itzaltzeko eginak diren instalazioen hornikuntzak sartzen dira. Hornidura hauek erabiltzaileak libreki erabili ahal izango ditu bakar-bakarrik sute kasuan edo haiek erabiltzea justifikatzen duen ezbeharraren denean. Hornidura hauek instalazio aldizkako probetan erabiltzea soilik baldin eta IZEAK horretarako baimena eman badu, zeinek bidezko uste dituen baldintzak ezarri ahal izango baititu.

8. OBRAK EGIKARITZEKO ERABILERA.

Kategoria honetan dagokion obra-lizentzia daukan edozein motatako obra egikaritzeko xedeaz soil-soilik erabiliko diren hornikuntzak sartzen dira. Haien ematea behin-behinekoa izango da eta denbora mugatu baterako.

9. GUNE PUBLIKOAK UREZTATZEKO ERABILERA.

Kategoria honetan, titulartasuna publikoa zein pribatua izan, jendearendako erabilpen publikoko berdeguneak mantentzeko erabiliko diren hornikuntzak sartzen dira.

10. UREZTAPEN PRIBATUKO ERABILERA.

Kategoria honetan lorategi-guneak, etxebizitza bati atxikirik egon zein ez, edo, laborantzaren helburua produktuaren merkaturatzea ez bada, baizik eta autokontsumoa, baratze txikiak mantentzeko erabiliko diren hornikuntzak sartzen dira, baldin eta dagokion hirigintza-lanabesak aipatu erabilerak baimentzen baditu.

Espezifikoki hartzen dira barne aisiako edo kiroleko jarduerak egiteko zelaiak ureztatzeko hornidurak.

11. AISIA-BATRATZEETAKO ERABILERA.

Kategoria honetan aisia-baratzeetan erabiliko diren hornikuntzak sartzen dira, dagokion hirigintza-lanabesak hala izendatu baldin baditu.

12. BEHIN-BEHINEKO ZERBITZU BEREZIRAKO ERABILERA.

Behin-behineko izaera, noizbehinkakoa edo iragankorra duten beharrak asetzeko hornikuntzak sartzen dira. Horiek ematea hornidura eskatzen deneko guneko instalazioen ahalbideen mende dago, bai eta herritarren behar orokorren mende ere, eta zerbitzua era prekarioan eta denbora mugatu baterako gauzatuko da.

13. UDAL ZERBITZUETARAKO ERABILTZEA

Kategoria honetan sartu behar dira higiezinetarako hornidurak, zerbitzu publikoko erabileraren baldintza beretan, baldin eta titularrak udala bada.

14. UDAL UREZTATZERAKO ERABILTZEA

Kategoria honetan sartu behar dira eremu publikoak ureztatzeko hornidurak, baldin eta titularrak udala bada.

79. artikulua

LEHENTASUN-HURRENKERA HORNIKUNTZAN

Zerbitzua ematea lehentasun-hurrenkera batez gauzatuko da, eta hortaz, eman egingo da lehentasuna ez duten erabileretarako, baldin eta hurrenkeran lehentasuna duten erabileren hornidura, unekoa zein geroagokoa, ezertan kaltetu egiten ez bada:

1. Etxeko erabilerak, suteei aurre egitekoa, titulartasuna Administrazio Publikoari edo Erakunde Autonomoei dagokienerako higiezinetakoz zerbitzu publikokoa, eta gizarte- interesekoa.
2. Industria, merkataritza eta iturri publikoetako zerbitzuak, saneamendu publikoko jarduerak eta igerilekuak eta beste kirol-instalazioak, eta kulturakoak titulartasun publikoa dutenak.
3. Nekazaritza, abeltzaintza eta obren egikaritzako erabilerak.
4. Gune publikoak ureztatzeko erabilera, ureztapen pribatukoa, aisia-baratzeak eta zerbitzu berezia behin-behinekoa.
5. Mankomunatu gabeko entitateen hornikuntza.

80. artikulua

ETXEKO ERABILERARAKO HORNIKUNTZA

Etxebizitzak diren higiezinetakoz hornikuntzak direnetan, eskatzaileek honako agiriak gehitu beharko dizkiote eskabideari:

1. Lehen eskualdatzeko edo birgaituriko etxebizitza denean:
 - Bizigarritasun zedula edo agiri baliokidea
 - Higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.
2. Bigarren eskualdatzeko etxebizitza denean, eta 101 eta 102 artikuluetan ageri diren hornidura eta saneamendu kontratuaren lagatze eta subrogazio ahalmenak ezertan kaltetu gabe:
 - Higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.
 - Bizigarritasun zedula.
3. Erabilera komunak direnetan, kontratatzailea erabiltzaile edo jabe-komunitatea delarik, haren eratzeari egiaztatzen duen agiria ekarri beharko da.

81. artikulua

INDUSTRIA ETA MERKATARITZA-ERABILERARAKO HORNIKUNTZA

Honakoak ekarri beharko dira:

1. Lehen eskualdatzeko higiezina edo erabat birgaiturikoa, edo bertan jarduketa berria hasiko bada:
 - Ingurumenean eragina duten jardueretarako egokia den baimena, aplikagarria den araudiaren arabera.
 - Aldez aurretiko jakinarazpena, arduratze-adierazpena edo irekitzeko lizentzia, araubideak ezartzen duenaren arabera.
 - Higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.
2. Lokal edo industria izanki, eta bertako jarduera da eskualdatzen dena, eskualdatze eskubidea edo 101 eta 102 artikuluetan ageri den subrogazio ahalmena ezertan kaltetu gabe:
 - Dagokion irekitzeko lizentzia indarrean dagoen legeriaren arabera.
 - Higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.

82. artikulua

ZERBITZU PUBLIKOKO ERABILERAK ETA ERABILPEN PUBLIKOKO GUNEEN UREZTAPENA

Honakoak ekarri beharko dira:

- Administrazio Publikoak edo dagokion jabeak horretarako egin eskabidea.
- Ingurumenean eragina duten jardueretarako egokia den baimena, aplikagarria den araudiaren arabera, jadanik espedientearen gehiturik ez badago.

- Aldez aurretiko jakinarazpena, arduratze-adierazpena edo irekitzeko lizentzia, araubideak ezartzen duenaren arabera.
- Gune publikoen ureztapena denean, titulartasuna publikoa zein pribatua izan, zerbitzuak emateko eskabidea aski izango da, eta, bidezko jotzen den kasuetan, ureztatzeko sektoreen banaketa-planoa ekarri beharko da, bai eta horietako bakoitzaren aldiuneko emariaren kalkulua eta haien aldiberekotasuna.

83. artikulua

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA ERABILERETAKO HORNIKUNTZA

Honakoak ekarri beharko dira:

- Eskabidea, hornitu beharreko azalera adieraziz.
- Ingurumenean eragina duten jardueretarako egokia den baimena, aplikagarria den araudiaren arabera, jadanik espedientearen gehiturik ez badago.
- Aldez aurretiko jakinarazpena, arduratze-adierazpena edo irekitzeko lizentzia, araubideak ezartzen duenaren arabera.
- Ustiakuntza horietako ekoizpenen norakoa merkaturatzea dela egiaztatzen duen agiritegia.
- Higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.

84. artikulua

GIZARTE INTERESEKO ERABILERARAKO HORNIKUNTZA

Honakoak ekarri beharko dira:

- Ingurumenean eragina duten jardueretarako egokia den baimena, aplikagarria den araudiaren arabera, jadanik espedientearen gehiturik ez badago.
- Aldez aurretiko jakinarazpena, arduratze-adierazpena edo irekitzeko lizentzia, araubideak ezartzen duenaren arabera.
- 78. artikulua, 6 atalean azaltzen diren balizko kasuetan egotearen egiaztatze-agiria.
- Higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.

85. artikulua

SUTEEI AURRE EGITEKO ERABILERARAKO HORNIKUNTZA.

Honakoak ekarri beharko dira:

- Suteen aurkako babes-instalazioaren obra-amaierako ziurtagiria.
- Higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.

86. artikulua

UREZTAPEN PRIBATUKO ERABILERARAKO HORNIKUNTZA

Honakoak ekarri beharko dira:

- Higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.
- Azalera 600 m²-koa edo handiagoa den lurzatietan, eta bidezko jotzen den kasuetan, planoaren gaineratu beharko da, zeinean sektorizazioa eta zirkuitu bakoitzaren ur-emaria adierazten den.
- Baratze erabilpena eman nahi zaien lurzatietan, etxebizitza bati atxikirik egon gabe ere, Udalak erabilpen hori baimenduz jaulkitako txostena.

87. artikulua

AISIA-BARATZEKO ERABILERARAKO HORNIKUNTZA

Honakoak ekarri beharko dira:

- Higiezina erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.

Hornidura osasun zerbitzu komun zentralizaturako eskatzen bada, aski izango da Udalak jaulkitako agiria, non aisia-baratze hirigintza-kalifikazioa egiaztatzen den.

Hirigintza plangintzak baratze bakoitzari bere hornidura ematea espreski baimentzen duen kasuan, lurzati bakoitzarendako gai horren ziurtagiria ere gehitu beharko da.

88. artikulua

OBRAK EGIKARITZEKO ERABILERARAKO HORNIKUNTZA

Obrak egikaritzea helburu den zerbitzua eskuratzeko, aldez aurretik obra egiteko lizentzia aurkeztea beharrezkoa izango da, haien babesgarri, eta gainera, obra lizentziaren titularra kontratatzailea bera ez

bada, obraren esleipenaren agiria.

Obrak Udal batek egikaritu behar dituen kasuan, obraren esleipenaren agiria aurkeztea aski izango da.

89. artikulua **BEHIN-BEHINEKO ZERBITZU BEREZIA**

IZEAk emandako eskabide-orriaz gain, behar bezala osaturik, bidezko jotzen den dokumentazioa aurkeztea exijituko da, behin-behineko zerbitzu berezi horretarako eskakizuna zein egokierak sorrarazi duen.

II. KAPITULUA **SANEAMENDU ZERBITZUA**

90. artikulua **KONTRATAZIOA**

Zerbitzua higiezin jakin eta zehatz batek bere hondakin-urak hustu ahal izateko aukera izan dezan eskatu beharko da, Ordenantza honetan, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduko 29ko 10/1988 Foru Legean, eta haren agarapen erregelamenduan, eta aplikagarri den gainerako legerian ezarriak diren betebeharrei jarraikirik. Ez da hustuketa ahalmenik emango erabiltzaileak IZEArekin dagokion kontratua izenpetu ez duen bitartean.

IZEAk kontratua eratzeari uko egin ahal izango dio hornidura zerbitzuarekiko egin dezakeen kasuetan beretan.

91. artikulua

ERABILERA

Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduko 29ko 10/1988 Foru Legean, eta haren garapen erregelamenduan zehazturiko erabileretarako kontratatu ahal izango da saneamendu zerbitzua.

92. artikulua **KONTRATAZIORAKO AGIRIAK**

Hornidura zerbitzua kontratatzeko eskatzen diren horietaz gain, erabiltzaileak bere eskabideari honako agiriak gehitu beharko dizkio:

1. Saneamendu sarean konektaturik dagoen higiezina bada, 67. artikuluan agertzen den saneamendu ziurtagiria aurkeztu beharko da.
2. Lurzatiko hondakin-uren hustuketa egiteko irtenbide autonomoa antolatu bada, gai horretan eskudun erakundeak jaulkitako baimen agiria ekarri beharko da.

III. KAPITULUA **BI ZERBITZUENDAKO KOMUN DIREN XEDAPENAK**

93. artikulua **JABETZAREN BAIMENA**

Beharrezkoa izango da hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateko zerbitzurako elementu materialen trazadurak jabetza pribatua ukitzen duen kasuetan.

Eskubide erreal den aldetik, bide-zor edo pasaera zortasun hori ukituriko lurzatiei dagokie hertsiki, zeinahi direla kontratatu diren zerbitzuak edo hornidura eta saneamendu zerbitzuak kontratatu dituzten erabiltzaileak.

94. artikulua **KONTRATUAREN IRAUPENA**

1. Zerbitzuak emateko formalizaturiko kontratuek, obren egikaritzarekin eta behin-behineko zerbitzu bereziarekin loturikoek izan ezik, mugagabeko iraupena izango dute, eta 98. artikuluan zehazten diren gertakariak suertatzen direnetan deuseztatu daitezke.
2. Obren egikaritzeko kontratua indarrean egongo da haiei babes ematen dien lizentziak eragina duen bitartean, eta erabiltzaileak berak deuseztatu beharko du obrak bukatzeko unean bertan.

3. Behin-behineko zerbitzu berezarako formalizaturiko kontratua indarrean egongo da bere mugaegunera arte.

95. artikulua **HORNIDURA ETA SANEAMENDU KONTRATUAREN ETETEA**

IZEAk hornidura eta saneamendu kontratua eten ahal izango du, eta, horren ondorioz, erabiltzaileei ur-hornidura ere eten, ondoren aipatzen diren kasuetan:

a) Erabiltzaileak hiruhilabeteko epean, ordainagiria ordaintzeko mugaegunaren datatik kontaktzen hasita, IZEAK edo Mankomunitateak emandako edozein zerbitzuren zenbatekoa, edota iruzurren kitapen finkotik ateratako zenbatekoak ordaindu ez dituenean, edo azken hori bezalako hutsa berriro egin duela frogaturiko kasuan.

b) Erabiltzaileak hornitzen den ura kontratuan agerturiko erabilerak ez diren bestetarako edo beste era batez erabiltzen duenean, edo, IZEAK errekerimendua egin eta gero, kontratua formalizatzeari uko egiten dionean. Hornidura berdin etengo da erabiltzaileak bere hornidura eta saneamendu instalazioetan kontratukoez beste etxebizitza edo lokaletarako deribazioak jarri edo jartzen utzi duenean, edo instalazioak iruzur egiteko asmoz maneiatu dituenean, edo isurpenak ordenantza honetan baimentzen direnez beste baldintzetan egin dituenean edo indarrean dagoen isurpenei buruzko araubideak hautsi dituenean.

c) Erabiltzaileak, IZEAK aurretik errekerimendua eginik eta zuzenketa egiteko epea iraganik, bere barneko instalazioetan moldakuntzak egiten ez dituenean, ez eta egoki lekizkiokeen kontserbazio, mantentze edo konponketa lanak egiten ere, eta honela indarrean dagoen araubidea hautsi, betiere zerbitzuko elementuei edo instalazioei kalterik eragiten dienean, neurketa ekipoa barne.

d) Barneko sarean edo sare pribatuan hirugarren pertsonari kalte egiten dien ur-ihesa gertatu delarik, zerbitzua aurretik abisatu gabe etengo da.

e) Erabiltzaileak IZEAK baimenduriko langileei, dagozkien identifikazio agiriak erakutsirik ere, kontraturiko zerbitzua edo zerbitzuak afektatzen dueneko higiezinean sartzen uzten ez dienean, zer eta instalazioak ikuskatzera, behar izan litezkeen hornitutako uraren laginak hartzera, edo ur-kontsumoa edo erabilera egiaztatuzera, edo kontagailua ordezkatzera etortzen direnean. Kasu horretan, gertakariari buruzko akta jaso beharko da, bi lekukoren aurrean edo agintaritza-agenteren bat bertan delarik.

f) Erabiltzaileak Ordenantza honetan, uraren ziklo integralaren prezioei buruzko Ordenantzan, edo ur-hornidura eta saneamenduari buruzko araubideetan seinalatzen zaizkion betebeharrak larriki hausten dituenean, edo kontratuan ezarritako baldintzei lotzen ez zaienean.

g) Eskudun Administrazioak IZEari hornidura eten dezala agintzen dionean.

96. artikulua **HORNIDURA ETA SANEAMENDU KONTRATUAREN ETETEKO PROZEDURA**

1. IZEAK kontratuaren eteteko espedientea eratzeari ekingo dio, honako prozeduraren arabera:

-Eratze egintzaren berri emango zaio erabiltzaileari, bidezko uste dituen alegazioak formulatzeko 10 eguneko epea emanez.

-Alegazioak aztertu eta gero, eta frogaturiko gertakariak ezertan aldatu ez badute, IZEAK kontratuaren etendura erabakiko du eta interesdunari jakinaraziko dio, orduetik aitzina hornikuntzaren etetea ere gauzatzen ahal delarik.

-Etetea erakarri zuten kausak behin konpondurik daudenean, zerbitzua berriro ematea egun berean gauzatuko da, edo, ezin hala izanik, hornikuntza etetea ekarri zuten kausak konpondu eta hurrengo lanegunean berean.

2. Prozedura hau ez da aplikagarria izango aurreko artikuluen d) eta g) ataletako kasuetan, ez eta, indarrean dagoen legeriaren arabera, hornikuntza ematen jarraitzeak herritarren osasunarentzat edo ingurumenarentzat arriskuak, errealak edo potentzialak, ekar ditzakeenean.

97. artikulua **ETETEAREN GASTUAK ETA HORNIKUNTZA BERRIRO EMATEA**

Hornikuntza eteteak sorrarazitako gastuak, hala nola geroago berriro ematen hastearrenak, kontratuko titularraren kontu izango dira, aplikagarri diren tarifa xedapenek eta indarrean dagoen beste araubideek

zehaztuko duten zenbatekoan, etetea bidegabekotzat joko ez balitz behintzat, halakoetan IZEAREN kontu izanen baitira.

98. artikulua **HORNIDURA ETA SANEAMENDU KONTATUAREN DEUSEZTAPENA**

1. Hornidura eta saneamendu kontratuak honako arrazoi hauengatik deuseztatuko dira:

- a) Kontratuaren titularrak edo horretara legalki baimen emandako pertsonak zerbitzuan baja eskatzen badu.
- b) Kontratuaren iraupen epea bukatzen denean, denbora mugatu baterako formalizatu bazen.
- c) Hornidura erabiltzeagatik haren kontratuko titularra izan gabe, 101. artikulua aipatzen duen eskualdatzeko eskubidea urratu gabe.
- d) Kontratuaren titularraren heriotzagatik edo desagerpenagatik, 102. artikuluan aurreikusitako subrogazio kasua izan ezik; eta kontratuko titularraren iraungipena, pertsona juridikoen kasuan.
- e) 95. artikuluan aurreikusitako motiboetariko batengatik zerbitzuak etetetik hiru hilabete baino gehiago iragan denean, etenaren arrazoi ziren kausak zuzentzeko kontratuaren titularrak beharrezko egintzak egin ez dituela.
- f) Hornidura eta saneamendu kontratua dauden elkarrekiko betebeharrarik edozein alderdiek bete ez dutenean.

2. Kontratu deuseztaturik, IZEAK zerbitzuetan baja emateari ekingo dio. Eta horrek berekin ekarriko du haien etete materiala eta IZEAKo langileei erraztu behar izatea etete horretarako zereginak egitea, beharrezkoa den kasuetan. Gorago aipatu diren kausetarik edozeinengatik kontratu deuseztaturik geratu eta geroago hornikuntza berriz hastekotan, eskabide berria egin, kontatu berria izenpetu eta dagozkion eskubideak ordainduz egikaritu beharko da.

99. artikulua **ZERBITZUETAN BAJA EMATEA**

Erabiltzaileak kontratuari amaiera emateko asmo irmoa adierazi beharko du garbiki, eskubide hau kontratua eratzeko baliatu zuen era berean balia dezakeelarik.

Zerbitzuetan baja emateak berekin dakar hauek etetea eta baja eskatu duen pertsonaren edo, besterik ezean, jabearen, betebeharra IZEAKo langileei errazteko lan horiek egitea, beharrezkoa den kasuetan.

100. artikulua **LEGE EGINTZAK**

IZEAK, hornikuntza etetea eta kontratuaren deuseztapena aparte utzita, bidezkotzat dituen egintza zibil eta penal guztiak eragin ahal izanen ditu, bere interes eta eskubideen defentsan.

101. artikulua **HORNIDURA ETA SANEAMENDU KONTRATUA LAGATZEAGATIKO TITULARTASUN ALDAKETA**

1. Oro har, kontratuaren titularrak ezin izanen dizkio bere eskubideak hirugarreni laga, ez eta IZEAREN aurrean dituen erantzukizunei muzin egin. Hala ere, IZEAREKIKO betebeharrak ekonomikoetan egunean dagoen erabiltzaileak, indarrean dagoen kontratua duenak, bere kontratua lokal bera eta kontrataturiko baldintza berberetan (erabilera, emaria, isurpenak, etab.) okupatu behar duen beste pertsona bati eskualdatu ahal izanen dio. Ulertzen da lagatzaileak egunean dituela bankuko betebeharrak, behin igaro denean lagatzearen xede den kontratuarekin lotuta bere izenean jaulkitako fakturen banku-arriskuko epea.

2. Titular aldaketa kontratuaren gai den lokal edo etxebizitza okupatuko duenaren eskariaz egingo da, eta, horretarako, eskualdaketa berri eman beharko du, jabe, errentari edo higiezin horren erabiltzeko eskubidearen titularra dela egiaztatuz.

3. IZEAK jakinarazpena jaso eta gero, kontratu berria idatzi beharko du erabiltzaile berriaren izenarekin, jatorrizko kontratuan emandako lagapen edo eskualdaketa adieraziz. Lagatzaile titularraren izenean jaulkitako fakturretan banku-arriskua badago lagatzeko eskaeraren aurretik, eskualdatze edo lagatze hori prekariokoa izango da, banku-arriskuaren epea igaro arte. Epe horretan fakturak ordaindu gabe gelditzen badira, ezin izango dira laga eskubide horiek eta lagatzea eskatu duen pertsonak kontratu berria formalizatu beharko du.

102. artikulua

SUBROGAZIOA

1. 98. artikulua d) atalean aurreikusitakoa hala izanik ere, kontratuaren titularraren heriotza gertatzen denean, haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak, ondorengoek, seme-alaba adoptatuek, aurrekoek eta neba-arrebek, baldin eta heriotza baino gutxienez bi urtez harekin eta ohituraz bizi izan badira, kontratuaren eskubide eta betebeharren subrogazioa egin ahal izango dute. Ez da bi urteko bizikidetasun epe hori beharrezkoa izango hildakoaren guraso-ahalean bizi zirenentzat, ez eta haren bikotekidearentzat edo ezkontidearentzat ere.

2. Jaraunsleak edo legatu-hartzaileak subrogazioa egin ahal izanen du, baldin eta etxebizitza edo lokalaren jabetzan edo gozamen-eskubidean kausatzailea ordezkatzan badu, kausa ekartzen duen kontratuaren betebeharrak eta eskubideak bere eginez. Pertsona juridikoen deuseztapen kasuan, subrogazioa bakarrik bat egiteko kasuetan egin ahal izanen dute, eta edonola ere IZEArri zerbitzuen kontzesiorako beharrezkoak diren baimen eta dokumentuak aurkeztu beharko dizkiote.

3. Subrogatzeko eskubidea gertaera eragilearen datatik aitzina hurrengo sei hilabetearen barnean baliatu beharko da, eta, hala dagokionean, jarauntsia edo legatu onartzetik, eta zuzenbidean baliozko den edozein bitartekoz formalizatuko da.

VIII. TITULUA. KONTSUMOA ETA FAKTURAZIOA

103. artikulua

KONTSUMOA

Erabiltzaile bakoitzak egindako kontsumoak honako prozeduren bitartez zehaztuko dira:

1. Neurketa ekipoaren irakurketa-diferentziaz.
2. Kontsumoen zenbatespenaz.
3. Kontsumoen ebaluazioaz.

104. artikulua

ZERBITZUAK EGIN KONTAGAILUEN IRAKURKETA

1. Erabiltzailea behartuta dago kontagailura edo neurketa gailura sartzen laguntzera IZEAK baimenduriko langileei, haiekin bidezko identifikazioa ekarri beharko dutenak.
2. Zerbitzu emaileak kontagailua irakurtzea IZEAK une bakoitzean ezarritako maiztasunaz egin beharko da.
3. Irakurketa lanegunetan egingo da, IZEAK espresuki baimendutako langileek egingo dute, 8ak eta 20ak bitartean, IZEAK ezarritako plangintzaren arabera.

105. artikulua

ERABILTZAILERAK KONTAGAILUA IRAKURTZEA

1. Erabiltzailea bertan ez dagoelako, irakurketa egitea ezinezkoa suertatzen bada, erabiltzaileak berak eman beharko du. Xede horretarako, irakurketa egiteko arduradunak inprimakia utziko du, irakurketa egiteko jarraibideak dituen. Edonola ere, kontagailuaren irakurketa eskuarki emateak ez du salbuesten hartarako sarbidea errazteko betebeharratik, IZEAKo langileek edo IZEAK espresuki baimendutakoek hala egin behar dutenean. Era berean, kontagailurako sarbidea erraztu beharko da, 12 hilabeteko epean irakurketa egiteko hartara sartu ez den kasuetan.
2. Aldi baterako homidurak ematen diren kasuetan, neurketa ekipo eramangarriez kontrolaturikoak, erabiltzailea beharturik egongo da neurketa ekipoaren irakurketa ematera, ezarritako maiztasunaz.

106. artikulua

KONTSUMOEN ZEHAZTEA

1. Neurketa sistema kontagailu bidezkoa denean, kontsumoen zehaztea IZEAK egindako edo erabiltzaileak emandako azken irakurketaren eta fakturatutako azken irakurketaren arteko diferentziaz zehaztuko da.
2. Fakturazioa egiteko eguna heldu eta, IZEAK erabiltzailearen kontagailuko irakurketa benetakoa edo baliozkoa ez badauka, dagokion aldia fakturatu ahal izango dio, kontsumoen zenbatespenaz edo

ebaluazioaz.

107. artikulua **KONTSUMOEN ZENBATESPENA**

1. IZEAr egotzi ezin zaioneko arrazoiengatik, haren langileek ez dutenean neurketa ekiporaino iristerik irakurketa egiaztatzeko, lan-ibilbidearen denbora arruntaren barnean, eta erabiltzaileak ez badio IZEAr irakurketa hori helarazten ezarritako epearen barnean, kontsumoaren fakturazioa kontsumoen historialaren arabera fakturatu ahal izango da, eta holakorik ez balego, IZEAREN esku dauden erabilera taulak eta kontsumo indizeen arabera.
2. Halaber, kontsumoen zenbatespena egitera jo daiteke irakurketa-diferentziatik erabiltzaileak egin ohi ez duen kontsumoa, IZEAREN iritziz, ateratzen denean.
3. Honela zenbatetsitako kontsumoak kontura-ko ezaugarria izango dute, eta egoera hurrengo aldiko fakturazioan erregularizatuko da, gehiegitzaz edo faltakoaz, kontagailuko irakurketa erreala jakin eta gero.
4. Denaldiari dagokion fakturazioa egiteko momentuan, IZEAK kasu hauetan aukera izango du kontsumoen zenbatespena egin ala hurrengo aldirako utzi, eta azken aldi honetan bietako kontsumoak metatu.

108. artikulua **KONTSUMOEN EBALUAZIOA**

1. Irakurketa egiteko tenorean neurketa ekipoan anomaliaren bat antzematen denean, edo kontsumo indize bakarra eskura dagoenean, edo, neurketa ekipo eramangarriaren kontratuen kasuan, ezarritako epean horien irakurketa eman ez denean, kontsumoaren fakturazioa aurreko artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz gauzatuko da.
2. Kontsumoen ebaluazioa egitera joko da kontagailu gabeko guneean ematen diren hornikuntza berezien kariaz ere, IZEAREN indizeen arabera eta hornidura emateko unean finkaturiko baldintzetan, erabiltzaileak onarturikoak.
3. Era berean, kontsumoen ebaluazioa bidezko izanen da ezkutuko ur-ihes batek sorrarazitako kontsumoa zenbatekoa den ikasi nahi denean, Ur-hornidura, estolderia eta saneamendua, arazketa eta Uraren Ziklo Integralari dagozkion beste jarduketak eta zerbitzuak emateagatik tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak arautzeko ordenantzan xede horretarako ezarritako tarifa aplikatzearen.
4. Ebaluazio prozeduraz egindako fakturazioa behin betikoko ezaugarria izanen du, alegia, ez da kontura izango.

109. artikulua **OROHARREKO PREZIOKO KONTSUMOAK**

1. Kontsumoa aldi baterako delako, prekario egoeran emateagatik, edo aparteko beste edozein arrazoiengatik, hornidura bolumen edo ur-emari finko batez adostu izan den kasuetan, edo aurretik finkaturiko kantitate bat erabilpen denbora unitate bakoitzeko, ezin izango da beste kontsumorik egotzi, adostutako haiek baizik.
2. Era berean, hornikuntza hauen kontratatzaileak edo erabiltzaileak ez du inolako aitzakiarik ekarri ahal izango, adostutako kontsumo edo kantitate horietan halako kendura egiteko oinarritzat har litekeenik.
3. Kasu hauetan, fakturazioa aldeztu aurretik egin ahal izango da, hornidura ematen den unean berean.

110. artikulua **EGIAZTAPENA**

1. Erabiltzaile batek bere instalazioan kontsumitutako ur bolumena kontagailuan erregistratu denari ez dagokiola uste duenean, haren errebisioa eskatu ahal izango du. Erabiltzaileak egiaztapenari dagozkion tarifak ordaindu beharko ditu horretarako. Kontagailuaren egiaztapena eskatzeko epea 2 hilabetekoa da, erabiltzaileak ados ez dagoen faktura jaulki den egunetik aurrera zenbatzen hasita edo, ordainarazpena ez bada egin, erregistratu den kontsumo-bolumenarekin ados ez dagoela erabiltzaileak komunikatzen duen unetik aurrera.
2. IZEA izanen balitz egiaztapena eskatzen duena, sorrarazitako gastuak haren kargu izango lirateke.
3. Bi kasu horietan IZEAK kontagailua desmontatu beharko du eta baimendutako laborategira igorri, eta berehalakoan egiaztatu beharrean den kontagailua zuzenki homologaturiko beste batez ordezkatuko du.

4. Egiaztapenetik kontagailuaren funtzionamendua zuzena dela ateratzen bada, erabiltzaileari egiaztapenaren gastuak zein muntaia eta desmuntatze gastuak ere fakturatuko zaizkio, eta bai lan horrek berekin dakarren beste edozein kostu ere, eta kontrako kasuan IZEAREN kargu.

5. Ustez funtzionamendu okerra egiten duelako, kontagailu baten egiaztapen ofizialaren aurreko aldietan egindako fakturazioak irrimoak izango dira egiaztapenak frogatzen badu haren funtzionamendua zuzena dela.

6. Funtzionamendu okerra egiten duela frogatu den kontagailu baten egiaztapen ofizialaren aurreko aldietan egindako fakturazioak konturako izango dira, eta kontratatzailearen alde edo haren kargu pendiente dauden zenbatekoen erregularizazioa egingo da, Ordenantza honen 108. artikulua aplikatuz. Erregularizazio hau ez da inoiz izango bi fakturazio-aldi baino luzeagoa den aldi batekoa.

111. artikulua **FAKTURAZIOA**

1. Kontsumoen fakturazioa Ur-hornidura, estolderia eta saneamendua, arazketa eta Uraren Ziklo Integralari dagozkion beste jarduketak eta zerbitzuak emateagatiko tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak arautzeko ordenantzak seinalatzen duen maiztasunaz egingo da.

2. IZEAK ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak une bakoitzean indarrean dauden tarifak aplikatuz fakturatuko ditu, Ur-hornidura, estolderia eta saneamendua, arazketa eta Uraren Ziklo Integralari dagozkion beste jarduketak eta zerbitzuak emateagatiko tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak arautzeko ordenantzak eta aplikagarri den beste araubideak kasu bakoitzean seinalatzen dituzten baldintzetan eta epeetan.

112. artikulua **ORDAINAGIRIKO INFORMAZIOA**

Hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateagatiko eratorritako erabiltzailearen ordaintzekoak agertzen diren dokumentuetan, faktura zein ordainagiritan, IZEAK indarrean dagoen legeriak une bakoitzean eskatzen dituen zehaztapenak agertaraziko ditu, tarifa sistemaren gaiak bananduta eta fakturazioko kontzeptu guztiak eta bakoitza era argi eta ulergarrian.

113. artikulua **ORDAINKETA**

1. Ordainagiriaren ordainketa erabiltzaileak Ur-hornidura, estolderia eta saneamendua, arazketa eta Uraren Ziklo Integralari dagozkion beste jarduketak eta zerbitzuak emateagatiko tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak arautzeko ordenantza eta indarrean diren beste araubideetan aurrirakosten den eran egin beharko du.

2. IZEAK fakturatutako zenbatekoak ordaintzeko, erabiltzaileak honako sistemen artean hautatu ahal izango du:

- a) Eskudirutan edo txartel bidez edo une bakoitzean IZEAK egokitutako bideetako edozeinetatik sartzen doazen beste bitarteko elektronikoko batzuen bidez.
- b) Erabiltzaileak seinalatutako kontuan banku helbideraketa eginez.
- c) Taloi edo txeki adostua.
- d) IZEAK seinalatutako kontura diru transferentzia eginez.

IX. TITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

I. KAPITULUA **ARAU-HAUSTEAK**

114. artikulua **DEFINIZIOA**

Erabiltzailearen aldetik arau-haustetat hartuko dira Ordenantza honetako artikuluen aurka hark egiten dituenak edo egin gabe uzten dituenak.

115. artikulua **SAILKAPENA**

Arau-haustek, beren garrantziaren nolakotasunagatik, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke,

ondorengo artikuluetan zehazten den eran.

116. artikulua **ARAU-HAUSTE ARINAK**

Honakoak arau-hauste arinak izango dira:

- a) Norberaren behar espezifikoetara uraren erabilpena mugatu beharra, horrela gehiegizko kontsumo alferrikako oro ekidinez, horniduraren erabiltzaile guztientzat eskuragarritasuna mantentzeko xedez, ez betetzea.
- b) Antzemandako edozein matxura ahalik eta lasterrenik IZEari jakinarazteko beharra ez betetzea, batez ere haren ondorioz ur-ihesa, edateko ur galeraz edo hondakin ur-isuriaz edo saneamendu sarean butxadura gerta daitekeenean.
- c) Modu nabarmen batean, edozer gauzaren kariaz, kontsumoen edota isurpenen ohizko erregimena edo hauen ezaugarriak, aldatzen dituzenean, hala nola kontsumituko den uraren erabilera aldatzen duenean, IZEari jakinarazteko beharra ez betetzea, horrek guztiak tarifa aldatzea eskatzen duenean edo, orohar, kontratuko baldintzen aldakuntza.
- d) Ur hornikuntza kontratatu diren xedeak ez bestetarako erabiltzea edo kontrataturiko isurpen baldintzak aldatzea.
- e) Aurreko horietaz gain, arau-hauste arintzat jotzen da Ordenantzan ezarritakoari aurka egiten dioten beste egintzak edo ez-egiteak, baina larritzat edo oso larritzat hartzekoak ez direnak.

117. artikulua **ARAU-HAUSTE LARRIAK**

Honakoak arau-hauste larriak izango dira:

- a) Isurpenak indarrean dagoen legeriak eta Mankomunitateak onesten dituen arauak ezarritako mugetan eta baldintzetan egiteko beharra ez betetzea.
- b) Eraikinen barneko instalazioa kontserbatu, begiratu eta erabileran arreta handienaz jokatzeko beharra ez betetzea.
- c) Kontratuaren xede den finkara, etxebizitzara, lokal edo barrutira sartzen libreki utziz, hornidura eta saneamenduko ikuskapen zereginetan, neurketa ekipoaren irakurtzera edo hura ordezkatzera heldu direnean, IZEaren langileei eta, bertako enplegatuek izan gabe, hark dagokion identifikazio txartelaz kreditatu dituen, beren lanak egitea errazteko eta lanak egikaritzen laguntzeko beharra, ez betetzea.
- d) IZEari berak eskatutako datuak, zerbitzuei buruzkoak edo haiekin erlazionaturikoak, ahalik eta era zehatzenean, emateko beharra ez betetzea.
- e) Ura dakarten hodietan edo hustuketa hodietan zuzenki ponpagailuak edo beste edozein gailu edo elementu txertatzea, edo, oro har, aurretik baimenik izan gabe horrelakoak erabiltzea, hornidura eta saneamendu sarearen baldintzak aldarazi ditzaketanak, eta ondorioz, beste erabiltzailerik emandako zerbitzua ere ukitu.
- f) IZEak hornituriko ura edo husteko bideak, ohitura gisa, birsaldutako edo dohainik lagatzea. Debeku honetatik kanpo daude IZEak ur-emariak hornitzen dizkien eta isurpenak husten dizkien Toki Entitateak, 11. artikuluan aurreikusten diren kasuetan.
- g) Neurketa ekipoaren sarbidea edo kokaera aldatzea, IZEaren baimenik gabe.
- h) IZEaren sareetako edo instalazioetako edozein elementu maneiatu edo horiei kalteak eragin, bai eta uraren karga edo erabilpenerako edozein elementu, eta, erabiltzailearen jabetzakoak izango balira ere, neurketa gailuak maneiatzea, hala nola suteen aurkako barneko instalazioak ere.
- i) Arau erregulatzailerean arabera dagokion hustuketa hodiari isurpenak egiteko lotura ez egitea.
- j) Hornidura sareko edozein elementutatik baimenik gabe eta era irregularrean ur hartzea.
- k) Ura erabiltzea, lehorteagatik larrialdi zorrotzeko egoeretan erabilera murriztuetarako.

118. artikulua **ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK**

Honakoak arau-hauste oso larriak izango dira:

a) Aurreko artikuluan arau-hauste larritzat hartutakoak, isurpenaren kantitateagatik edo kalitateagatik ondoan zerrendatzen direnentzat arrisku handia sortzen denean, alegia, pertsonen osasuna, natur baliabideak, ingurumena, hondakin-uren bil-hodietan efluentea libreki zirkulatzea, kondukzioen egoera egokia edo hondakin uren araztegiaren funtzionamendu zuzena.

b) Arrisku edo larrialdi egoeren berri ez ematea, edo Administrazioak horrelako egoeretan exijitzen dituen betebeharrak ez betetzea.

c) Isurpenak egitea eteteko aginduak ez betetzea.

d) IZEAren baimenik gabe ur hartzea, hornidura sarean kutsadura sor dezakeen prozeduraren bidez.

e) IZEAk hornitzen duen instalazioari beste ur-hornikuntza iturriak lotzea, nahiz eta hauek edateko urak izan.

f) Ura erabiltzea, lehortegatik larrialdi larriko eta muturreko egoeretan erabilera murriztueterako.

g) Hauetaz gainera, iruzur gisako ondorengo arau hauek ere oso larritzat hartuak izanen dira:

-Aurreko paragrafoan ageri den arau-haustea, horretatik neurketa ekipoaren funtzionamendu ona, presio diferentziagatik, kaltetuta suertatu ahal denean.

-Ur hornikuntza kontratatu deneko xedeez beste batzuetarako erabiltzea, edo kontrataturiko isurpen baldintzak eraldatzea, erabiltzaileak onura ekonomikoren bat ateratzen duenean.

-Ur kontsumoak egitea neurketa ekipo baten kontrolik gabe, edo dagokion kontratua formalizatu gabe, hala nola instalazioetan hura lortzeko edozein aldaketa egitea, eta berdin kontrolatu beharreko isurpenak direlarik egiten bada

-Neurketa ekipoaren zigiluak, irabazteko asmoz hautsi edo eraldatzea.

II. KAPITULUA. ZEHAPENAK

119. artikulua ZENBATEKOA

Aipatu arau-hausteei aplikagarri zaizkien zehapenak honelakoak izango dira: 3.000 euro arau-hauste oso larriei, 1.500 euro artekoak arau-hauste larriei eta 750 euro arte arau-hauste arinei.

120. artikulua ZEHAPENEN GRADUAZIOA

1. Zehapenen aplikazioan, honakoei begiratuko zaie, alegia, asmo txarra edo arau-haustea errepikatu den, eragindako kalteen izaera eta urtebeteko epean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin izana, ebazpen irmoz hala deklaratu izan denean.

2. Zehapena %20ko gutxitzearekin ordaindu ahal izango da, dagokion zenbatekoari aplikatua, baldin eta ordainketa zehapen-espedita eratzearen jakinarazpena ematen den egunetik kontatzen hasita lehenengo hamabost egunetan egiten bada.

3. Behin-behineko neurri gisa hornidura etetea erabaki ahal izango da.

121. artikulua IRUZURRAGATIKO KOMPENTSAZIOA

1. Iruzurra instalazioetan egindako manipulazio baten ondorioz gertatzen denean, kontrataturiko zerbitzuak ematea eten egingen da, harik eta instalazioak hasierako egoeran berriz utzi eta arau-hausleak eragindako gastuak ordaindu dituen arte.

2. Arau-haustek egitearen kausaz erabiltzaileak onura ekonomikoa eskuratzen duenean, 119. artikuluan aurreikusten diren zehapenak ezartzeaz gain, egindako iruzurratik ere dagokion likidazioa egingo da.

3. Iruzurraren ezaugarriak direla eta, kontsumitutako ur bolumena zenbatekoa izan den zehazki finkatzerik

ez dagoenean, aurreko atalean aipatutako likidazioa egitearren, kontuan hartzen den aldian hargunetik pasa ahal izan den gehienezko kopurua hartuko da iruzurraren bolumentzat, eguneko hamar orduko kontsumoaren neurrian.

4. Ezinezko suertatzen bada iruzurra zenbat denboraz egin izan den zehazki finkatzea, kasu bakoitzean ageri diren zantzuei erreparaturik, likidazioan denbora-eskala hau erabiliko da:

-Zantzuek iruzurra egin deneko denbora hamabost egun baino gehiago izan ez zela iradokitzen dutenean: hamar egun.

-Iruzurrak gutxi gorabehera hilabeteaz iraun zuela uste denean: hogeita bost egun.

-Hilabetetik hiru hilabetera bitarteko denboraz iraun zuela uste denean: hirurogei egun.

-Hiru hilabetetik sei hilabetera bitarteko denboraz iraun zuela uste denean: ehun eta berrogeita hamar egun.

-Sei hilabetetik urtebetera bitarteko denboraz iraun zuela uste denean: hirurehun egun.

-Urtebete baino gehiagoz iraun zuela uste denean: zazpiehun eta hogeita hamar egun.

122. artikulua **ERALDATUTAKO ERREALITATE FISIKOA**

1. Zehapenak eta eragindako kaltea konpontzeko beharra, bai eta iruzurrean galarazitakoaren birjarpena edo gerta zitezkeen beste erantzukizunak gauza independenteak dira. Eragindako kaltea konpontzearen, hornidura edota saneamendu sareen elementuak eta instalazioak lehengo egoerara fisikora bihurtzeko beharrezko jarduketak egikaritzea erabakiko da, hasteko eta bukatzeko epemugak finkatuz.

2. Finkatutako epeetako bat zehatutakoak ez betetzea edo hasitako lanen geldiaraztea, izango da aski arrazoi IZEAK lanen exekuzio subsidiarioa egin dezan, arau-hauslearen kontura.

3. Era berean, Mankomunitateak erantzukizuna duenari erabakitako neurrien eraginkortasuna bermatuko duen fidantza bat aurkeztea eskatu ahal izango dio.

123. artikulua **ZEHAPENEN EZARTZEA**

Ordenantza honetan aurreikusten diren arau-hausteak egiteagatik ezarriko diren zehapenak, kasu bakoitzean eskumena duen Mankomunitatearen organoak erabakiko ditu, toki erregimenaren araubideari jarraikiz eta aipatu Entitate horren organoen eskumenei buruz bere Estatutuetan dauden xedapenen arabera.

124. artikulua **ZEHAPENEN PROZEDURA**

Ordenantza honetan tipifikaturiko arau-hausteak egiteagatik zehapenak ezartzeko prozedura Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera izapidetuko da, eta bestela badagokio, horren ordeztu onetsitako araubidearen arabera.

X. TITULUA. ERREKLAMAZIOAK ETA JURISDIKZIOA

125. artikulua **HELEGITEAK**

1. Iruñerriko Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak, SA sozietatearen arteko harremanen erregelamenduaren arabera, IZEAREN egintzak aurkaratuak izan litezke Mankomunitate-Buruaren aitzinean, hilabeteko epean eta ondorengo betebeharren beteta:

a) Elkartearen erabaki-egintza guztien aurka jartzen ahal da helegitea, bai eta izapidetuen aurka, baldin eta prozedura bati jarraipena ematea galarazten badute edo defentsarik eza sortzen badute, eta interesdun izaera dutenak dira horretarako zilegitasuna dutenak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

b) Interesdunak aldeztu aurretik IZEAREN aitzinean erreklamazioa aurkeztu izan beharko du. IZEAREN aitzineko erreklamazioa erreklamatzeko den elkartearen erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean egin beharko du.

c) IZEAK haren erreklamazioari erantzun baina interesdunaren nahikariak bete gabe, honek emandako erantzun horren kopia gehituko du.

2. Interesdunak IZEaren aitzinean erreklamatu eta hamabost eguneko epea iraganik, hark erantzunik helarazi ez diolarik, haren nahiari ezetza ematen zaiola ulertuko da, eta hark Mankomunitate Buruaren aitzinean helegitea jarri ahal izanen du, Elkartearen aurrean egin erreklamazioaren kopia gehituz, Erregistro Orokorrean zein datatan sartu zen agertzen

126. artikulua **JURISDIKZIO-HELEGITEAK**

Aurreko artikuluan aipatzen diren helegiteak ebazteko Mankomunitateko buruak hartu erabakiak bide administratiboa agortu egiten du, eta erabaki horri aurka egin izango zaio, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aitzinean jakinarazia izan eta hilabeteko epean, edo bestela zuzenean Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren aurrean, haren jakinarazpenetik hasi eta bi hilabeteko epean.

127. artikulua **JURISDIKZIOA**

Edonola ere, erabiltzailearen eta IZEaren artean planteatzen diren auzigaiak, ordenantza honetan arautzen diren zerbitzuak direla-eta sorturiko harremanen ondorio, Iruñeko Auzitegi eta Epaitegien jurisdikzioaren barnean geratuko dira, beste foruak oro bazter utzita.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENENGOA. ZERBITZUEN ESKURAGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTEN TEKNIKOAK

1. Ordenantza hau indarrean jarri baino lehenago, ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuei dagokienez, IZEAK txosten emandako hirigintza-plangintza eta egikaritze lanabesak eta eraikuntza proiektuak txosten horiek diotenari jarraikiz egikarituko dira.

2. IZEaren hornidura eta saneamendu zerbitzuei buruzko aurre txostena izateko eskabiderik egin gabe onetsitako hirigintza-plangintza eta egikaritze lanabesak, hasierako onespina egin zen unean indarrean zegoen uraren ziklo integralaren Kudeaketari buruzko Ordenantza Erregulatzailaren xedapenen arabera moldatu beharko dira. IZEaren aurre txostena izateko eskabiderik egin gabe obra lizentziak emandako eraikuntza proiektuak obra lizentzia eman zeneko unean indarrean zegoen uraren ziklo integralaren Kudeaketari buruzko Ordenantza Erregulatzailaren xedapenen arabera moldatu beharko dira.

BIGARRENA. DAUDEN INSTALAZIOEN EGOKITZAPENA

1. Ordenantza honetako baldintzetarik betetzen ez duten erabiltzaileek, eta indarrean jartzen denean ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuetarako kontratua IZEarekin formalizaturik daukatenek, beren egoera mugagabe mantendu ahal izango dute, Ordenantza honen edukiari egokitzearren beren instalazioak moldatzeko borondatea adierazi bitartean.

2. Higiezin edo lokal batean, zaharkitze arrazoiengatik, edo izaera orokorreko araubideari egokitzapena egiteko, edo hornidura eta saneamendu zerbitzuen erabilera aldaketagatik, barneko instalazioak aldatzea beharrezkoa balitz, instalazioak Ordenantza honetan eta aplikagarri diren beste araubideetan ezarritakoari moldatu beharko dira.

HIRUGARRENA. NEURKETA EKIPOEN JABETZA

Beren ur-kontsumoak kontrolatzen dituen neurketa ekipoa jabetzan daukaten erabiltzaileek horrelaxe mantenduko dute balio-bizitza epea amaitu eta, IZEaren ardurapean, ordezkatu behar den artean, zeinek bere jabetzako kontagailuak jarriko baititu. Hala izanik ere, erabiltzaileen jabetzan dauden kontagailuei ere berdin aplikagarri zaie Ordenantza honetako 73.3 artikuluan ageri den neurketa ekipoen kontserbazio, mantentze eta ordezkatzearren erregimena.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA. TOKI ENTITATEAK ATXIKITZEA

Mankomunitateari atxikitzea eskatzen duten Udaletan hornidura eta saneamendu zerbitzuak emate efektiboa Nafarroako Gobernuak onesten dituen inbertsio-planetan xedaturikoaren baldintzapean dago, eta zerbitzu horiek era egokian emateko beharrezkoak diren azpiegitura guztien kanpo-finantzatzearen mende.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA


Ordenantza hau indarrean jartzen den unean, indargabeturik geratzen dira, ez baliorik eta ez eraginik ez dutela, maila bereko edo baxuagoko xedapenak, erregelamenduak edo ordenantzak oro, ezarrita egon eta honi aurka egiten diotenak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN haren behin betiko onespeneren erabakia argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ARAUZKO ERANSKINAK

1. ERANSKINA. GAI TOXIKOEKIN OPERAZIOAK EGITEKO URA HARTZEKO GAILUAREN KROKISA.



Di.- ELIKATZEKO HODIAREN BARNEKO DIAMETROA
A.- AIRE GANBERAREN ALTUERA (A>10cm eta A>2xDi)

Ur sarrerak eta ura hartzeko ontziak osatzen dute babes gailua. Ur sarrera, hain zuzen, edateko ona den ura garraiatzeko egokia den elikatze hodi baten bidez egingo da. Sartzeko zuloaren eta ura hartzeko ontziaren goiko aldearen artean aire ganbera bat egongo da, inolako oztoporik gabea, A distantzia batean, 10 cm baino handiagoa eta $2D_i$ baino handiagoa den distantzian $-D_i$ da elikatze hodiaren barne diametroa cm-tan-. Fluxuaren norabideak ura hartzeko ontziraino airearen bidez erori behar du presio atmosferikora eta β angelu bat eratuz, 15° gainditzen ez duena bertikalarekiko.

Elikatze hodia ura hartzeko ontzian bertan edo kanpoan egon ahal izango da instalatuta, euskarri finko batean, besteak beste, zutoin batean, aurrealde edo fatxada batean... Nolanahi ere, ziurtatu eta bermatu behar da aire ganbera beti egotea, etengabe, eta oztoporik gabe. Euskarri finkoaren gainean instalatzea antzekoa izango litzateke.

2. ERANSKINA. KONTAGAILUEN BATERIETAN INSTALATU BEHARREKO BALBULAREN FITXA TEKNIKOA

BALBULAREN EZAUGARRIAK, ESKUIRAN, 13 MM-KO KONTAGAILURAKO, BATERIAN IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A. 2014KO MAIATZA

Presio nominala	16 bar
Diametro nominala	DN 20 mm
Neurriak	UNE 19804* arauaren araberakoak
Obturadore mota	Bola
Atzera ezinekora	Irteerako balbulan jarria. Torpedo motako itxigailua, malguki gidatuak aktibatua albo mugimenduak saihesteko eta ixte-eraztun motako ixte juntura duena
Lotura mota	Sarrera balbula <ul style="list-style-type: none">- Sarrera: Brida orientagarria, UNE 19804* arauaren araberako neurriak, baterian- Irteera: Hari arra, ezkerretarakoa, 3/4" eta errakorea, eskuin-ezkerretarakoa, 3/4"-7/8" Irteera balbula <ul style="list-style-type: none">- Sarrera: Hari arra, ezkerretarakoa, 3/4"- Irteera: Hari arra, 1", flexo edo errakore zororako loturarako hari emea 1"
Igarobidea	DNri eutsiko dio uraren ibilbide osoan, balbula guztiz irekita dagoela. Karga galera 0.77 l/s-ra (balio normalizatua) 2.5 m.c.a. baino txikiagoa sarrera balbulan eta 3.0 m.c.a. baino txikiagoa irteera balbulan
Maniobra	Eskuzkoa, "tximeleta-azkoin" edo antzeko bidezkoa. Maniobrak ezin izango du gainditu UNE 19804* arauan zehaztutako haustura-momentua
Ixtearen noranzkoa	Erloju orratzen araberakoa
Egiaztatze puntua	Hari arra, tapoiduna, DN 3/8" edo 1/2" irteera balbulan
Egonkortzeko tartea	Sarrera giltzan eta luzera zuzen nahikoa izan behar du nahasmendurik saihesteko kontagailuaren sarreran, ISO 4064 arauaren araberakoa, 1. zatia
Marka	UNE 19804* arauaren araberakoa

MATERIALAK (gutxieneko kalitateak)

Gorputza	Letoia, beroan estanpatua CW617N (UNE-EN 12164 eta 12165)*
Obturadorea	Bola balbula: erretxina azetalikoa edo letoia, tefloizko estaldura duena
Maniobra ardatza	Letoia
Estankotasun junturak	Elastomeroa EPDM, NBR, SBR (UNE-EN 681-1)* edo PTFE
Atzera ezinekora	Material ez oxidagarria, gehienbat nylon, poliamida edo poliazetala. Altzairu herdoilezinezko malgukia. UNE 19804* arauaren arabera homologatua. Karga galera < 0.75 m.c.a.
Torlojuak	Altzairua, Dacromet tratamendua duena, zirrindola soldatua duena

GAINDITU BEHARREKO SAIOAK (balbula eta atzera ezineko sistema, UNE 19804*-9227:2007*)

Korrosioa-240 h gatzeko laino ganberan/Dimentsionala/Estankotasuna/Jokaera mekanikoa presio pean/Hidraulikoak/Erresistentzia ixte elementuak txertatzeari/Erresistentzia mekanikoa/Balbulen iraupen mekanikoa/Atzera ezineko gailuaren iraupen mekanikoa/Akustikoak

* indarrean dagoen azken bertsioa, barne hartuta eguneratzeak, aldatzeak, gehitzeak eta antzekoak.